

2009ko apirila

81. zenbakia

aikar!

txorierriko aldizkaria



**Elkartasun
bidaia,
basamortura**

AURTENETXE, S.A.

Nekazaritza eta lorezaintzarako tresneria saldu eta konpontzen dugu



Tresneria profesionala: **ESKAINITZA** berezia


Kontsultatu beste promozioak



Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Sogean Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Autonomia, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18



Aikor!

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Jon Goikouria eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Inés Serrano, Lurdes Lasuen, Aner Mentxaka, Urko Lasarte, Oihana Astobieta, Belen Gana, Juan Luis Goikoetxea eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

2010-2015

Ministerio de Política Social y Bienestar



BFA
DFB
Federazioa Eusko
Deputazioa
Federazioa Eusko



diruz lagundutako aldizkaria

12 Jon Zabal



16 Korrika 16, Txorierrin



28 Derioko jaiak



24 Juan Luis Goikoetxea



34 Arbildua Lauroetako jai-batzordea



AURKIBIDEA

- 4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
- 12Gurean izan da... Jon Zabal
- 14Gaztea eta... Eneko Eguskizaga
- 16Korrika 16, Txorierrin 22Literaturia
- 24Juan Luis Goikoetxea 26Derioko jaiak 32Euskararen inguruko jardunaldiak
- 34Arbildua Lauroetako jai-batzordea 36Osasuna 37Teknologia
- 38Musika 39Antxinako argazkia 40Sukaldaritza
- 41Denborapasa 42Agenda





INÉS SERRANO
(Filosofia zalea)

Bai, badakit topiko bat dela, urtero datorrela, eta mila gauza dakarrela, besteak beste alergia eta enparauak. Baina zer gura duzue esatea, aizue, aurten fuerte etorri da, eta jaso baino ezin da egin, etorri bezala, gogoz eta indarrez. Eta, betiko moduan, zer pentsatu ere ekarri dit, hausnartzeko paradatxo edo. Betiko moduan.

Lehengo eta behin, sentipena. Izan ere naturarekin gero eta lotura gutxiago duen gizartean, gure herri txiki, jator eta goxo honetan ez duzu El Corte Inglés-en beharrik udaberria bertan dagoela jakiteko; bazter guztietan igartzen baita bere agerri-
ra. Haitzen artean hazitako zuhaizka txiki

Udaberria

eta fina balitz bezala, lur eremu zabal eta emankorren landatu ostean egun gutxitan zuztarrak sakon luzatu eta kimu eta hostoak berehalakoan eskaintzen dituen. Kementsua.

Denboraren ideia ere ekarri dit gogora. Denboraren kontzepzio lineala (hasiera-amaiera) abiapuntutzat duen kultura honekin alderatuta, zikloen segida askoz erakargarriagoa dela iruditzen zait. Natura zikloa adierazten da, bere joan-etorriekin, gauzak errepikatzen edo berritzen, betiereko itzuleran. Eta nago gizakia ere zikloa bizi dela, ezin duela munduko gertaeretatik jarraipen lineal horren arabera zeozer garbirik atera, aldibereko esperientzia multzo moduan ezpada, bere osotasunean ulertu nahi badu, behintzat. Baina sarritan, denboraren neurri artifizialetan hain murgilduta bizi denez, enteratu ere ez dela egiten ematen du. Jakitsuago izan behar.

Udaberriak oparitu didan beste ulertasuna aldakortasunarena da. Eder, gazte, fin edo aberats mantendu nahi duen gizartean gauzak aldatu egiten direla baino esaldi egiazkoagorik ez dago. Ezer ez da betikoa naturan. Harriek ere, denboraren poderioz, itxura ere aldatu egiten dute. Bainatzen

“Aurten fuerte etorri da, eta jaso baino ezin da egin, etorri bezala, gogoz eta indarrez”

garen erreka sekula ez da berbera izaten. Baina gu konturatu ez, aspertzen gara betiko ikuskeraz eta betiko jarreraz, ohartu gabe beti dagoela zeozer desberdin, zeozer berria. Eta, hala ere, bizi ditugun momentuak gorde gurean gabiltza, sentipenak ontziratzen, oroimenak biziari. Agian ziurtasuna ematen digulako, eta datorrenak, ezezaguna izaki, gehiegi beldurtzen gaituelako. Ausarta izan behar, natura bezala, ardura larregirik gabe.

Laburbilduz, eskerrak burua galtzea maite dugun adiskideontzat sasoi paregabea heldu zaigula hain hausnarketa lehor eta sakonak modu dibertigarriagoan praktikan ipintzeko. Beraz, nagiak atera, neguaren ajeak astindu, bizipen berriei leku egin eta udaberri honek dakarkiguna hartu, merezi baldin badu. Udaberri on!

Beldurrak uxatu eta euskara erabili

Badira urte batzuk gaur egun Txorierriko Udal Euskaltegia dena euskara klaseak ematen hasi zela; 1988/1989ko ikasturtean hasita hain zuzen ere. Hasierako urteetan Derio, Sondika eta Zamudioko udalek babestutako euskaltegia zen, baina urteak pasatu ahala Txorierriko Udal Euskaltegia izateraino heldu da.

Lehengo urteetako ikasleen eskari nagusia oinarritzeko euskara bazen ere, gaur egun erdi eta goi mailako euskara da. Izan ere, hezkuntzan euskara normalizatzen ari da. Zenbat eta gazteagoa izan, orduan eta normalagozat hartzen da euskara, eta poliki-poliki norberaren

kulturaren zati sentitzen da. Hala ere, hizkuntza bat ez da gramatikara mugatzen, trebetasunak ere hor daude: mintzamina, idazmina, irakurmina eta entzumen. Guzti horiez gain, ohiturak eta sineskerak, euskalkiak... ezagutzea ere oso aberasgarria da.

Euskaltegiaren helburu nagusia betidanik euskara irakastea izan arren, erabilera ere erronka nagusienetakoa da. Euskaldunak kalera atera behar du euskara; beldurrak uxatu eta euskara erabiltzea da kontua. Ikasturte honetan enpresen eskariak ere igo egin du; jendea buru belarri prestatzen ari da. Euskaldun asko dago, baita euskara era-



LURDES LASUEN
(Txorierriko Udal Euskaltegiko zuzendaria)

biltzeko aukerak ere; zenbait ohitura aldatzea izango litzateke gauza.



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunetan atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, **AIKOR!**-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@aikor.com.

Loiu; herri bat, eskola bat

Loiun ez dugu eskola publikorik, baina, hala ere, ikastetxe pribatu asko daude. Goizero dozenaka autobus dabilta Txorierriitik, milaka gazte eskola horietara eramateko. Eta bitartean, seme-alabak irakaskuntza publikoan hezi nahi ditugun gurasoek Sondikako eskolara bidali behar ditugu umeak derrigorrean.

Gorondagane eskolako Guraso Elkarteak **AIKOR!** aldizkarian azaldu zuen moduan, Sondikako eskolak duen arazorik larriena leku falta da. Gainera, Loiutik Sondikara zazpi minutuko ibilbidea badago ere, umeek 45 minutu eman behar dituzte bidean, autobus bakarra dagoelako ibilbidea egiteko. Ondorioz, goizegi altxatu behar dira ohetik eskolara joateko.

2002. urteko udal argitalpenean (Loiuko hausnarketa estrategikoa) ahuleziatzat hartzen zen herrian eskola publikorik ez izatea, eta hura eraikitzea gomendatzen zen. Horren haritik, ikastetxea eraikitzeke proposamena egin genion guraso batzuek alkateari, baina kontua ez zegoela udalaren esku erantzun zigun. Hortaz, udalaren jarrera kontraesankorra dela ulertzen dugu, ez baitute erakusten arazoari irtenbidea emateko asmorik. *Herriz Herri Txorierri* aldizkariaren 15. zenbakian ere mintzatu zen

gai honi buruz. Han kexatu ziren moduan, Francoren garaian Loiu Bilbora anexionatuta zegoenean "edonorentzako ikastetxe pribatuak zeuden, baina herrikoen gabeziak ez ziren betetzen".


Gure iritziz, Loiuko Udalak ez du Agenda 21ean sinatu zuena bete. Izan ere, Aalborg-eko gutuna onetsi eta Udal-sarea 21ean sartu zenean, bete behar ziren konpromiso batzuk hartu zituen eta haien artean, berdintasuna eta justiziari buruzko 9. puntua zegoen: "erakunde integratzaile eta solidarioak aurkezteko konpromisoa hartu dugu eta ondorioz, zerbitzu publikoen sarbide egokia segurtatu nahi dugu hezkuntza, enplegu, prestakuntza eta informazio gaietan". Hala, eskola publikoa sortzeak komunikazioa, kohesioa eta gure herriarekiko izate-sentimendua sendotuko lituzke gazteen artean.

Duela gutxi 25 urte bete dira Bilbotik desanexionatu ginenetik. Denbora nahikoa izan dugu balantzea egiteko, eta uste dugu Udalak ez dituela bere eginkizunak behar bezala aurrera eraman. Eta hori, Estatuko udalerrien rankingean Loiu postu altuan izan arren.

Aitor García-Salmónes, Loiuko aita kaltetua

Obus bat detonatu dute Derion

Derioko udaltzaingoak jakinarazi duen arabera, Manduliz auzunean dabilztan langileek obus bat topatu zuten beharrean ari zirela. Gertaera apirilaren 17an izan zen. Udaltzainek Ertzaintza deitu zuten eta lehergailua ikuskatu ondoren, hura leheretzea erabaki zuten. Detonazioa segurtasun-neurriak kontuan hartuta egin zuten. Poliziak azaldutakoaren arabera, beste batzuetan bezala "Gerra Zibileko obusa da".



Egurra, Morgako Azokaren protagonista

Morgako Azoka apirilaren azken domekarako zegoen antolatuta, baina eguraldi-iragarpenaren arabera oso eguraldi txarra egingo zuen, eta azoka maiatzaren 17an egitea erabaki du Udalak.

Morgako Azoka hamargarren aldiz egingo dute, eta aurtengo edizioaren protagonista egurra izango da. Antolatuko diren ekitaldien artean hauek aipa ditzakegu: antzinako zerrategi baten erakustaldia, tronczalariak eta egurrezko figurak egitea motozerraz. Umeentzako jolastokia ere egongo da eta hainbat salmenta-postu jarriko dituzte: txakolina, gazta, euskal pastala, saskigintza eta zeramika, besteak beste.



ARTE EDERRAK ESKULANAK, E.A.

JA-SOLAS MANGUET I. JAVIERA DINTXORIAN

Liburugazak, liburuen salmenta, giletak, liburuak, prentsa, aldizkariak, liburuak, paperezkoak eta elektronikoak

Miliet Zuzen, 2 Tel. / Fax: 94 499 1637
48100 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORIA

Liz. Fernando Aguirre, e.l.

Miliet Zuzen, 2

Tel: 94 499 1637 Fax: 94 471 06 18

48100 SONDIKA (Bizkaia)



1.100 litro txakolin baino gehiago saldu ziren Larrabetzun

Apirila ezin hobeto hasi genuen, izan ere, Txakolinaren Eguna zortzigarren aldiz egin zuten Larrabetzun. Hauek izan ziren azokaren antolatzaileak: Nekalur, Bizkaiko Foru Aldundia, Larrabetzuko Udala eta BBK.

Larrabetzuko Txakolinaren Eguna nekazaritza-egutegiko hitzordurik garrantzitsuenetarikoa da, eta aurtengo edizioa ez da salbuespena izan. Zifra zehatza ematea ez da erraza, baina antolatzaileek adierazi diguten moduan, Larrabetzuraino 3.500 lagun inguru hurbildu ziren domeka goizean.

Azokan Txorierriko "Bizkaiko Txakolina" jatorrizko deitura duten 11 ekoizleek hartu zuten parte eta 1.100 litro txakolin baino gehiago saldu ziren. Era berean, 1.200 kopatik gora erosi ziren. Antolatzaileen esanetan, krisialdian eta Aste Santuaren atarian egon arren salmenta onak izan dira aurten. "Pozik egoteko modukoak".

Beste alde batetik, lehiaketa egin zen parte-hartzaileen artean, posturik dotoreena aukeratzeko. Sasikoetxe txakolinak lehenengo postua lortu zuen; Magalartek, bigarrena; eta Erdikoetxek, hirugarrena.

Argazkia: Maite Z.



Herri Urrats eta Ibilaldira joateko autobusa, Txorierritik

Maiatzean hitzordua izango dugu ikastolen aldeko jaiekin. Hilaren 10ean Herri Urratsa ospatuko da Senperen; eta hilaren 21ean, Ibilaldia Galdakaon. Txorierritik autobusak aterako dira jai bietara joateko.

Herri Urratsera joateko izena ematea apirilaren 20tik maiatzaren 7ra bitartean egin behar da; eta Ibilaldira joateko, apirilaren 20tik maiatzaren 28ra bitartean. Izena ematea Mankomunitatean eta udaletxe guztietan egin daiteke, eta bost euro ordaindu beharko dira fidantza moduan. Hala ere, jaia ospatu eta hurrengo 15 egunetan hiru eura itzuliko zaie parte-hartzaileei.

ibilaldia

garbaitik eguzki begira

Paella txapelketan izena emateko epea zabaldu da Loiu

Beti Lagunak Loiuako jai-batzordeak Paella Txapelketa antolatu du San Pedro jaietako egitarauaren barruan. Txapelketa ekainaren 27an egingo dute liburutegi eta anbulatorioaren atzean dauden landetan, eta loiuztarrek ez ezik inguruko herrietako koadri-lek ere edukiko dute bertan parte hartzeko aukera. Izena ematea maiatzaren 18tik 22ra bitartean egin behar da, goizeko 10:30etik 13:00etara, Zabalotxeko eskola zaharretan.

Koadrila bakoitzarentzat 18 m²ko gunea gordeko da. Guneak 70 euro balio du eta horrezaz gainera, 20 euroko fidantza ordaindu beharko da. Antolatzaileek hauek emango dizkiete parte-hartzaileei: olana, tutuak, ura, egurra eta arroza. Paellak egiteko, egurra zein butanoa erabili ahaliko da.

TXORIERRI
Immobiliaria

ENTRADA EN EL SECTOR INMOBILIARIO
CON UNA GRAN EXPERIENCIA
EN EL SECTOR DE INMOBILIARIOS
ECONOMICOS
CON UNA GRAN EXPERIENCIA EN EL SECTOR
INMOBILIARIO

ENTRADA EN EL SECTOR INMOBILIARIO
CON UNA GRAN EXPERIENCIA
EN EL SECTOR DE INMOBILIARIOS
ECONOMICOS

Navari

Navari

Navari

Navari

Navari



WATER - WATER

WATER

Water

Water

Water

CAZTELEU TIGRE

CAZTELEU TIGRE

CAZTELEU TIGRE

CAZTELEU TIGRE

CAZTELEU TIGRE

ANKAPALU

ANKAPALU

ANKAPALU

ANKAPALU

ANKAPALU



Euskarazko errotuluak jarri dira 50 denda eta komertziotan

Txorierritar batzuek kezka hau dute: den-
da edo tabernetara doazenean, ez dakite
nork dakien euskaraz eta nork ez, eta
horren aurrean beti errazenera jotzen dute,
"badaezpada erdaraz". Mankomunitateko
Euskara Zerbitzura jo eta zer egin galdetu
diete.

Arazoari erantzuna emateko, Euskara
Zerbitzuari mahai gainean edota hormetan
jartzeko errotuluak egitea bururatu zaio.
Errotuluok Euskararen normalizaziorako
hitzarmena sinatu duten Txorierriko den-
da eta taberna guztietan banatu dira, nahi
duenak bere establezimenduan jartzeko.
Orotara 50 denda eta komertziok egin dute
bat egitasmoarekin. Bakoitzak bi errotulo
hartu ditu hormetan jartzeko, eta errotulo
bat mahai gainean ipintzeko.

Errotulu mota bi diseinatu dituzte: le-
henengoa euskara ondo dakitenei dago zu-

zenduta; eta bigarrena, euskara ikasten da-
biltzanei. Egitasmoak norbait denda edo
taberna batera sartzen bada eta kartela
ikusten badu, euskaraz eginez gero ulertu-
ko diotela jakitea du helburu.

Horrezaz gainera, tabernari erdaldu-
nentsako oinarritzko hiztegia ere prestatu
du Euskara Zerbitzuak. Besteak beste, esa-
moldeak, zenbakiak eta edariak euskaraz
nola esaten diren batu dituzte hiztegi ho-
rretan. Oinarritzko hiztegia doan banatu da
beharrizana duten tabernarien artean.

Beste alde batetik, erosketen zerrenda
apuntatzeko libretatxoak kaleratu zituen
Euskara Zerbitzuak duela urte bi. Ekime-
nak arrakasta handia izan zuen, eta horre-
gatik, denda guztietan ale gehiago bana-
tzea pentsatu dute. Libretatxo horietan,
erosi beharrekoa apuntatzeko orriak ez
ezik gaikako hiztegiak ere badaude.


San Isidro egunaren ospakizunak, Txorierrin

San Isidro baserritarren zaindaria da, eta
egun hori Euskal Herriko hainbat herritan
ospatzen dute; Txorierrin berton ere bai.

Zamudio-Derioko Lur-langileen Etxe-
koek zenbait ekintza antolatu dute maiat-
zaren 16rako. Horrela, meza izango dute
goizeko 11:30ean, eta eguerdiko 13:30ean
zaldi-probak izango dira. Probetan Egoitz
Basaras (Zamudio) eta Javier Bidaurreza-
garen (Derio) zaldiek hartuko dute parte.
Horren ostean, Bazkideen arteko bazkaria
egingo dute. Jaialdia trikitilariak girotuko
dute.

Lezamako Baserritarren Elkartekoek
ere meza edukiko dute goizeko 12etan. Idi-
probak mezaren ondoren egingo dituzte,
eta ekitaldian hauen idiak arituko dira:
Aretxaga anaiak (Lezama), Jose Angel Bil-
bao (Zamudio) eta Jose Antonio Sistiaga.
Bazkaria eguerdiko 3etan izango da.

Azkenik, Larrabetzun maiatzaren 12a
arte zabaldu dute San Isidro Eguneako baz-
karian izena emateko epea. Izena ematea
Udaletxean, liburutegian eta Gure Etxean
egin daiteke. Bazkal ostean mus txapelketa
egongo da, besteak beste.



Bizkargi, gudarien omenezko hitzordua



Maiatzaren 3an, domekaz, Bizkargi Eguna izango da eta aurreko edizioetan bezala, Hori Bai gaztetxeak deia luzatu die herrita-

rrei, mendira elkarrekin igo daitezten. Hitzordua goizeko 9:30ean jarri dute, plazan. Eguerdiko ordu batetan ekitaldia izan-

go da Bizkargi mendian, atzo eta gaurko gudarien omenez, eta arratsaldeko 7:30etik aurrera manifestazioa eta erromeria egingo dira Larrabetzun.

Beste alde batetik, herriko lasterkari batzuk aurreko egunean, eguerdiko 12etan, batuko dira Bizkargira korrika igozteko. Ekimen hau hirugarren aldiz egingo dute aurten, eta helburu hau du: "Larrabetzuko korrikalariak eta lagunak batu, eta tarte atsegina pasatzea elkarrekin. Izan ere, korrika egin ostean pote batzuk hartu eta bazkaltzera joango gara, ziur asko". Eki-men honetan adin ezberdinetako 25 lagun inguru batzen dira; gizonezkoak, guztiak. Egon badaude Larrabetzun emakume korrikalariak, baina gaur egun arte ez dira animatu ekitaldian parte hartzera. "Ahal-eginak egingo ditugu, ea aurten baten bat animatzea lortzen dugun".

Koadrilen jaia

Larrabetzuarrek beste hitzordu bat izango dute maiatzean, izan ere, hilaren 16an Koadrila Eguna ospatuko dute. Egunean zehar hainbat ekitaldi egongo dira herrian; euren artean, hauek aipa daitezke: kalejira, tortilla txapelketa, herri-bazkaria eta erromeria Hori Bai gaztetxean.

**MARMOLERIA
TXORIERRI
MARMOLDEGIA**

*Sakabide eta bainageletako harriak
fotoak, atariak eta hilerriak*

Tamara Capallá Irujo, P. JR. - nafar 57
981 76 7400 (BIZKARGI)
Tel. Fax: 94 608 01 41 - 3

LOHIZUN
Gazteak

Barrio de San Juan, 15
48940 Zamudio
94 608 01 41 - 3

ZAMUDIO

Barrio de San Juan, 15
48940 Zamudio (Bizkaia)

TXORIERRI

Barrio de San Juan, 15
48940 Zamudio (Bizkaia)

BAR BIDE-BI

Barrio de San Juan, 15
48940 Zamudio (Bizkaia)

BIDE GORRI

Barrio de San Juan, 15
48940 Zamudio (Bizkaia)

cianoplan s.a.
global printers

Barrio de San Juan, 15
48940 Zamudio (Bizkaia)
Tel. Fax: 94 608 01 41 - 3

- Kopiatze eta planatze laguntza.
- Barrio de San Juan, 15.
- Digitalizazio eta baskulizazio, automatizazio eta laguntza.
- Barrio de San Juan, 15.
- Barrio de San Juan, 15.
- Barrio de San Juan, 15.
- Barrio de San Juan, 15.
- Barrio de San Juan, 15.

Gastronomiaren Urtea, Derion



Derioko Ostalarien Elkartek Gastronomiaren Urtea ospatuko du aurten, Udarekin batera. *Derio dastatu* lelopean, hainbat ekimen egingo dira apiriletik aurrera, herriko hotelak, tabernak eta jatetxeak ezagutzera emateko asmoz. Honela, ardo, pintxo zein olio dastatzeko egingo dira, besteak beste. Gainera, lehiaketak, zozketak eta kontzertuak ere antolatuko dira. Oraindik ez dakite zehatz-mehatz non edo noiz egingo diren ekitaldiak, baina hiru hilabeteen behin gutxienez ekintza bat antolatzeko asmoa dute. Kalea ekintzak hartzeko lekuri proposena dela uste dute antolatzaileek, bertan ahalik eta jende gehienak parte hartzeko.

“Herritarrak gurera etortzea nahi dugu”, esan du Santos Núñez hostalarien presidenteak. “Derio herri ezaguna da, baina jendea nekez hurbiltzen zaigu.

Goi-mailako hotelak, jatetxeak, landa-etxeak edo tabernak ditugu Derion. Horregatik, derioztarrei ez ezik, kanpoko bizilagunei ere gu ezagutzera etortzeko gonbidapena luzatzen diegu”, gaineratu du Lander Aiarza alkateak. Ostalaritzak herriari eskaintzen dion kalitatea azpimarratu dute kanpainaren sustatzaileek. Arlo honek garrantzi handia dauka Derion. Izan ere, 30 saltokik osatzen dute ostalarien elkarte, eta jarduerak 120 lanpostu zuzen sortu ditu.

“Euskal Herriko gastronomia ezaguna da mundu mailan: gure kulturaren zati handi bat da, dudarik gabe. Hori dela-eta, gastronomia bultzatzeko ekimeneetan parte hartu eta horiek sustatu beharra du Udalak, enpresak herriko aktiboak baitira. Gainera, krisi garaian gaude eta gure laguntza inoiz baino beharrezkoa da”, adierazi du Aiarzak.

Seme-alaben heziketaren gaineko hitzaldia eta kurtsoa, Larrabetzun

“Ume baten arima zaintzea erabakitzen duen helduari, aspalditik bizi gabeko poztasuna berreskuratzeko aukera eskaintzen dio bizitzak. Horretarako, zaintzaileak bere arimarekin bat egitea gauzarik garrantzitsuenak da, soilik horrela lortuko baitu umenarekin konektatzea”. Hala dio Cristóbal Gutiérrez hezitzaileak. Gutiérrezek “Maitasuna eta mugak” hitzaldia emango du maiatzaren 15ean, arratsaldeko 7,30ean, Anguleri Larrabetzuko Kultura Etxean.

Horrezaz gainera, maiatzaren 16an eta 17an ikastaro bat egingo da umearen arimaren zaintzan sakondu nahi dutenentzat. Ikastaro hori gurasoei, hezitzaileei eta terapeutei dago zuzenduta. Parte-hartzaileek hausnarketa egingo dute euren buruaren gainean, eta kezka-eta besteen aurrean

azalduko dituzte. Helburua hau da: pertsonak berak osotasunean bizi izaten laguntzen dion konponbidea topatzea.

Ikastaroa Larrabetzuko eskolan izango da eta 12 ordu iraungo du: zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era; eta domekan, 10:00tik 14:00etara. Izena ematea maiatzaren 9a baino lehenago eginen bada, 110 euro ordaindu beharko da; 200 euro, bikotea apuntatzen bada. Egun horretatik aurrera, berriz, ikastaroak 130 euro balio izango du; 240 euro, bikoteentzat.

Informazio gehiago lortzeko eta izena emateko, mezua bidal daiteke helbide elektroniko honetara: caibilbao@gmail.com; edo telefono zenbaki honetara deitu: 94 455 89 40 (Angela Menica).

GOIKO TABERNA Leiopean, lelopean
Jatetxe

• 1000m² eremu
 • 1000m² eremu
 • 1000m² eremu
 • 1000m² eremu

1000m² eremu

FMC Forest, S.L.

Zabaldu Pabillo
 1000m² eremu
 1000m² eremu
 1000m² eremu
 1000m² eremu

FMC forest

DERIO

LEONAR ORTUONDO
ALUMNO

Alumno Leonar
 Alumno Leonar
 Alumno Leonar

LAURENCE 24 Alumno
Alumno Leonar

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Poliklinika, 10-11A
 1000m² eremu
 1000m² eremu

G

1000m² eremu
 1000m² eremu
 1000m² eremu

1000m² eremu
 1000m² eremu
 1000m² eremu

ganilo

1000m² eremu
 1000m² eremu
 1000m² eremu

1000m² eremu
 1000m² eremu
 1000m² eremu

Nur bildumaren bigarren liburua kaleratu du Toti Mtz de Lezeak



Toti Martínez de Lezea Larrabetzuko idazleak *Nur eta oihan misteriotsua* gaztetxoek zuzendutako liburua argitaratu berri du. Liburua *Nur* bildumaren bigarren alea da, eta oraingo honetan, protagonistak abentura izugarria bizi izango du aitita-amamaren etxean lagunekin batera. "Fantasiatzko istorioa da, baina errealitatean kokatzen dena; hau da, umeen irudimenean oinarritzen dena".

Nur ilobarentzat idatzitako liburu-saila da, "heldua denean hainbat gauza eta bizi-pen gogora ditzan eta aitita-amamaren-

gandik oroipen bat izan dezan". Nur jaio zenean, berarentzat liburua idazteko eskatu zion behin baino gehiagotan alabak, eta idazleak orain topatu du momentua: "Iloba erreferentziatzen dut eta orain badakit gaztetxoek nola pentsatzen duten, nola hitz egiten duten, zer gustatzen zaien...". Toti familia eta lagunengan oinarritu da istoriaren pertsonaiak sortzeko orduan. Liburuarekin batera, lupatxo bat oparitu du, izan ere, liburuaren orrialde guztietan pertsonaia txiki-txiki bat agertuko da eta irakurleek non dagoen deskubritu beharko dute. "Istoriaren bitartez ez ezik pertsonaia eta kuriositatearen bitartez ere gaztetxoak erakartzea da asmoa". Liburua euskaraz zein gaztelaniaz kaleratuko da.

Webgunea

Horrezaz gainera, euskarazko webgunea bat sortu dute: www.nurplaneta.com. Antzara-joko antzeko joko batean Nurrek hainbat proba gaindi beharko ditu: letrazopa, galderak, labirintoa... Jokalariak puntu-kopuru zehatz bat lortzen duenean, argitaletxera deitu ahal izango du, opariak eskuratzeko.

Beste alde batetik, Larrabetzuko idazleak *Perlas para un collar* liburua kaleratuko du maiatzean. Liburua Angeles de Irisarri idazlearekin batera idatzi du eta bertan emakume judutar, kristau eta musulmanen istorioak bildu dituzte. Azkenik, aipatu behar da Erein editorialak sakelako liburu edizioan argitaratu dituela Totiren hiru liburu: *Judu-kalea*, *Kattalin* eta *Ogaiztarak*.

Komiki tailerra, Zamudion

Zamudioko liburutegiak eta Gazte-estazioak komiki tailerra antolatu dute. Tailerra 12 urtetik 18 urtera bitarteko gazteei dago zuzenduta eta maiatzaren 8an, 15ean, 22an eta 29an egingo dute liburutegian. Arratsaldeko 6etatik 8etara izango da.

Ekimenak helburu bikoitza du: batetik, komiki mundua gazteei hurbiltzea; eta bestetik, gazteak hainbat lekutan antolatzen diren komiki lehiaketan parte hartzera animatzea. Tailerra Arlantz Aranguena komiki-egileak zuzenduko du, eta hiru ataletan banatuko da. Lehenengo atalean, komikia eta arte sekuentzialaren historia landuko dute; hau da, nondik datorren eta zeintzuk diren komikiaren aitzindariak, besteak beste. Bigarren atalean, komikiaren funtsak eta oinarriak jorratuko dituzte: planteamendua, sailkapena, atalak, gidoia... Eta hirugarren atalean, komikia sortuko dute. Horretarako beharrezkoak diren tresnak, teknikak, formatuak... landuko dituzte. Izena ematea apirilaren 30era arte egin daiteke Gazte-estazioan.

Benteveo liburu-bilduma

Beste alde batetik, lagun batzuek arazoak dituzte liburuak irakurtzeko orduan. Izan ere, liburuaren hizkia txiki-gia da batzuetan eta irakurtzea kostatzen zaie, ikusmen-arazoak dituztelako. Horren ondorioz, ez dituzte liburuak irakurtzen.

Zamudioko liburutegiak *Benteveo* liburu-bilduma osatzen duten hiru liburu erosi ditu: Ernest Hemingway-en *El viejo y el mar*; Nathaniel Hawthorne-ren *El velo negro del ministro y otros cuentos*; eta Charles Exbrayat-en *Amor y esparadrapo*. Edizio hauek handiago dute hizkia, eta erosoak dira edozein pertsonak irakurtzeko.



Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Elektronikazko gogakak




Erakutsi gogakak

Plakak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.ez



BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK



LORRA, S. COOP.

Barrio Garbaitza, n°23
 48135 LEZAMA (BIZKAIA)
 Tel. 94 455 50 53 / Fax: 94 455 52 45
 e-mail: lorra@lorra-coop.net



www.lorra-coop.net

Jon Zabal, magoa

“Magia mitoa da”

Saio batzuk egin ditu telebistan, baina Jon Zabal magoak nahia-go du antzerkia. Portugaleteko mentalista Sondikan ikusteko aukera izan dugu, eta bere truku psikologikoez gozatu genuen. Elkarrizketan ez zen jokorik egon, baina gozamena bai izan zen.

Testua: Gaizka Eguskiza / Argazkiak: G.E. eta Jon Zabal




SONDIKAN KULTUR ETXEA
Castro kalea, 1 (elkarren artean)
Telefonoa: 94.453.64.63

ANTZERKIA

Helorak: 18, 19-20etan

ROCK COMPANY SHOW
Filip (Jokin Aguirre)


18.00etan, 19.00etan,
19.30etan, 20.00etan



Helorak: 23, 20-00etan

OMÉLIA
Iris (Iris Aguirre)

20.00etan, 21.00etan



Zelan Sondikan?

Estreinaldia egin nuen. Ikuskizun bitxia izan zen, edo jendeak hala pentsatzea nahiko nuke. Nire ikuskizuna ez da betiko magoek egiten dutena, hau da, nik ez dut emakumerik erditik moztzen. Nire jarduera psikologikoagoa da. Ni jendeak buruan duena asmatzen saiatzen naiz. Gainera, euren portaera zuzentzen dut mezu subliminalen bidez.

"Ikusi duzuen guztia zure imajinazioak sortutakoa da", dio Anthony Blake mentalistak. Zure ikuskizuna antzekoa dela esango zenuke?

Ez da gauza bera, baina bai, neurri batean antzekoa da.

Zelan hasi zinen magia munduan?

Txikitatik naiz magoa. Egia esan ez dakit noiz erabaki nuen magoa izan nahi nuela. Hala ere, magia kartekin eta mentalismoa landuko nituela gogoratu egiten dut. Horrek esan nahi du magiaren beste alderdiak ez zaizkidala gehiegi interesatzen.

Eta zergatik aukeratu zenituen bi jardue-ra horiek?

Kartekin ibiltzea polita da, baina ezin da antzerkietan egin; oso esparru txikitetan baizik. Mentalismoa, ordea, areto handietan antzeztu leiteke: gauzak ez dira leku batetik bestera mugitzen eta, ondorioz, edozein lekutatik dago ikusgai magoaren jarduera. Gaur egun ilusionismo psikologikoa esaten zaio. Nire ustez nahiko pedantea da, baina oso aproposa ere iruditzen zait. Izan ere, ilusionismoa hartzen du oinarritzat, baina psikologiaren bidez jartzen da praktikan. Ikuskizunaren muina ez da betiko magoaren eskuen trebetasuna.

Boteretsua izango zara...

Ez, ez, batere ez. Truku psikologikoak erabiltzen ditut, baina magia da, hau da, ikusten dena ez da benetakoa. Betiko trukuak eta truku psikologikoak uztartu egiten ditut, eta nire ikuskizuna da emaitza. Baina ez da batere maltzurra.

Idoloren bat duzu?

Ez zait idolorik izatea

gustatzen. Mago asko ditut gustuko, ez pentsa, baina euren lanak gehiegi ikustea ez dut gustuko, azkenean eta, nahi gabe, kopiatu egiten baitituzte.

Psikologia ikasi duzu. Lagungarria izan da zuretzat?

Nik karrera ikasi nuen, baina ez dut inoiz psikologo lan egin. Psikologia erabilgarria da nire lanean, baina zientziazat hartuta, txantxa da.

Magotzat hartzen duzu zeure burua, baina aktore, aurkezle telebistan edo zuzendari ere ibili zara...

Bai, denetarik egin dut, baina ez naiz aktorea. Zinea izugarri gustatzen zait, baina lan handia dakar, eta ni alfer hutsa naiz! Garai batean zinea eta guzti ikasi nuen, eta zuzentze-lanak atsegin ditut. Baina ez dut karrera hasi nahi; beraz, noizean behin film laburren bat zuzentzen dut. Antzerkia ere ikasi dut, baina nire lanerako lagungarria delako, besterik ez.

Telebistan, zinean, antzerkian... Non sentitzen zara eroso?

Nire trukuak telebistan zein antzerkian egitea gauza bera da, baina antzerkia nahiago dut. Telebistan mago asko agertzen dira, baina orain telebistan egiten denak ospea kentzen dio magiari. Izan ere, trukuak artifizialak dira, magoak berak egin beharrean irudiek edo kamerek sortutakoak baitira. Askori gustatuko zaizkie, agian,

Artista anitza

Zinea:

—*Conectando, Hola mundo cruel, La morena, Locos por el sexo.*

Telebista:

—*Capital (Telemadrid), El viernes más humor edo Más humor (ETB)...*

Antzerkia:

—*El cero transparente, El largo adiós, La estanquera de Vallecas, Las payasadas del Arcipreste, Usted.*

“Betiko trukuak eta truku psikologikoak uztartu egiten ditut, eta nire ikuskizuna da emaitza”

baina nik ez dut uste etikoak direnik. Gezurra da, eta magoak horrelakoak egin ez gero, zergatik ez jarri aktore ederren bat magoaren orde?


Azken bolada honetan magia modan omen dago: telebistan agertzen dira, pelikulak egin dira...

Bai, eta laster “The Amazing Kreskin” mentalista amerikarraren inguruko filma aurkeztuko dute. Kreskin hori itzela da!

Magia mitoa da, eta filmak-eta atsegin ditut, magiaren mitoa handitzen dutelako. Barietateetako artistak gara magoak, baina apur bat bereziak gara, “mirariak” egiten ditugulako. Eta mirariak egiteko mitikoak izan behar gara.

Etorkizunari begira, zer egingo duzu?

Sondikan aurkeztu dut ikuskizuna lehenengo aldiz, eta datozen bi urteotan leku guztietara eramatea dut helburu. Lehenengo saioak gogorrenak dira publikoak ikuskizuna ezagutzen ez duelako. Maiatzean, esaterako, Leioako azokara joango gara.



Eneko Eguskizaga, areto-futboleko jokalaria



“Familia bezalakoa da Hegalariak taldea”

Biologia ikasten hasi eta Sondika CD futbol taldea utzi zuen Eneko Eguskizagak, Sondikako Hegalariak taldean areto-futbolari ekiteko. Eskiatzea ere gustatzen zaio. Kirolari peto-petoa da 20 urteko gazte hau.

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza

Zelan hasi zinen areto-futboleko jokatzen?

Sondika futbol taldean aurrelari jokatzen nuen, baina unibertsitatean arratsaldez hasi nintzen ikasten. Beraz, ez nuen astirik aldi berean futboleko aritzeko eta ikasteko. Eta futbola utzi nuen. Orduan, Hegalariak taldeko batek galdetu zidan ea bertan jokatzea nahi nuen, ez zela denbora gehiegi behar. Eta onartu egin nuen.

Futboletik areto-futbolera pasatu zinen. Zelan aldaketa?

Nahiko gogorra. Jendeak uste du gauza bera dela, baina ez da egia. Hasiera batean, galduta sentitzen nintzen aretoan, lekurik

gabe eta lekuz kanpo. Baina denboraren poderioz, egokitu egin naiz. Aurrelaria nintzenez, futboleko ez nuen gehiegi defendatu behar; areto-futboleko ordea, gora eta behera ibiltzen naiz, hau da, jokalaria guztiok aldi berean egon behar dugu erasoan eta defentsan.

Taldeakide asko zu baino zaharragoak dira. Zelan moldatu zara eurekin?

Ondo, oso ondo. Oso jatorrak dira eta primeran hartu ninduten. Familia bezalakoa da Hegalariak taldea, hainbat adinetako lagunak baikara. Oso giro ederra dugu: txantxak, barreak... Jokatzeko gain, bazkariak eta meriendak ere egiten ditugu, besteak beste.

“*Etorkizunari begira, Ingalaterrara joango nintzateke masterren bat ikastera*”

Iaz primeran ibili zen taldea, baina aurtentokerrago dabil. Zer gertatu da?

Ez gara fin ibili. Ez dakit zergatik. Arrazoi asko egon daitezke: lesioak izan ditugu, aurtengo txapelketa lehia handiagokoa da, talde hobeak baitaude... Gainera, aukerak sortu arren, izugarri kostatzen zaigu golak sartzea.

Eta zu, zelan ibili zara aurtentokerrago?


Iaz baino kaskarrago. Aurreko denboraldian 15 gol sartu nituen, esaterako, eta aurtentokerrago gutxiago egin dut.

Futbolariak gain, futbolzalea ere izango zara. Zein talde gustatzen zaizu?

Athleticzalea naiz, baita bazkidea ere. Eta Kopako finala ikusteko txartela tokatu zait. Lagunekin joango naiz Valentziara. Ea zortetik dugun eta irabaztea lortzen dugun. Nik uste dut irabaziko dugula, baina zaila izango da, Bartzelona oso talde ona da.

Futbolaz aparte zer egiten duzu?

Biologia ikasten nabil, oso gustura. Hirugarren mailan nago. Biokimika egin nahi dut eta etorkizunari begira masterren bat egingo dut, kanpoan agian. Ingalaterrara joango nintzateke. Biologia ikasiz gero, badakit aukera gutxi daudela lan egiteko, baina saiatuko gara.



EUSKAL ASTEA ZAMUDIO 2009

gaurkoa, Maiatzak 22

19:00:

Pieritz, Porrota eta Marimutots
"Urtatxak". Kintilldegia. 8 euro
Txarritak salgai maitatzen 12tik 18ra
Zamudioa udalokoa.
12 urte arteko jende zamudioetara
berrera bira hartzeko
Aldera berria duela lagaria zela!

Zapatua, Maiatzak 23

10:00:

(bi)aldi didaktikoa umeentzat
"Zamudio, zure herria zurea"
Dimitriak hasia

12:30:

Lagatu Fama-Euskal jantzia
Bertoko taldeak
Urtatxo kantarekin jarraitzen
Dimitriak

20:00:

Erreman Martikorenenaren
kantaldia
Dimitriak. Dax!

gomeka, Maiatzak 24

09:00:

X. Mendi ibilaldia
"Zamudio eragata"
Plazatik hasia

12:30:

Herriko
Txakolinen dastatzea
Plazan

Astelehena, Maiatzak 25

20:00:

Patxi Zubizarreta
"Hamar urte eta dei bat"
Guretzat! musikak
Dimitriak. Dax!

Asteazkena, Maiatzak 27


19:30:

X. Euskal kanta
Ikastaroaren 1. saloa
Iñaki Arrietaoren eskutik
Dimitriak
(Barkideak: 5 euro
eta barkideak: 8 euro)


Asteartuna, Maiatzak 26

20:00:

"Lagatzuk 10 urte.
Badauka etorkizunik
Euskarak gure artean?"
Mikel Argandoña, Juan Luis Colmenero,
Mikel Colmenero, Asun Ucarin,
Sergio Barza eta Urtxo Colmenero
Dimitriak



Txorierritarrok ongi-etorri beroa egin genion Korrikari



Txorierrin 30 minutu beranduago sartu arren, hemengo euskaltzaleak zintzo-zintzo egon ziren euskararen aldeko lasterketaren zain. Korrika inoiz baino arrakastatsuagoa izan da gurean; horren seinale, lasterketarekin bat egin zuten milaka eta milaka lagunak. Zapatua izanda ere, nagiak atera eta goiz-goiz irten ziren txorierritarrek etxetik. Korrikak kilometro guztietan topatu zituen lasterkariak. Ibilbiderik luzeenak Sondikan eta Derion izan ziren, baina haietan ere inork ez zuen hutsik egin. Euskararen lekukoak eskuz esku zeharkatu zuen gure eskualdea: Erandiogoitik Erletxera, tipi-tapa. Eta bidean ume, gazte

eta nagusiekin egin zuen topo. Agintariek, enpresen eta sindikatuen ordezkariak, euskara elkarteak eta dantza, kirol eta kultura talde gehienek ere ongi etorria eman zioten Korrikaren 16. edizioari. Korrika egiten ez zuenak besteak animatzen zituen. Bertoko soinu tresnen elkartekoek instrumentu eta guzti hartu zuten lasterketa, eta herritar askok balkoia apaindu zuten; Derion, adibidez, Korrikaren karteak lekua partekatu zuten Athleticen banderekin. Larrabetzun ia herritar guztiak batu ziren euskararen lekukoaren zain, eta ibilbide osoa egin zuten txorierritarrek haiekin egin zuten bat; bati baino gehiagori olio-ipurdia jarri



HORTZ KLINIKA

Alfonso Zaldia

Odontologia eta Estomatologia
Kirurgia - Ortodontia - Periodontia

Dr. Alfonso Zaldia, Dr. Jose Maria Zaldia, Dr. Maria Zaldia
C/ San Juan, 11 - 48940 Leizor (Bizkaia) - 945 21 11 11

LEANDRO LANDOLA

HILABETARRA, IRISATZARRA

Leizor, 11 - 48940 Leizor (Bizkaia) - 945 21 11 11

AM

Amplificación de la voz
Amplificación de la voz
Amplificación de la voz

Amplificación de la voz
Amplificación de la voz

Amplificación de la voz
Amplificación de la voz

zitzaion.

Erantzun ezin hobia eman dio Txorierrik AEK-k egindako deiari, eta arduradunak pozarren dabilta. "Oso lasterketa arrakastatsua izan da, polita, eta jenderik gehien inplikatu dena". Izan ere, lagun askok eta askok hartu dute parte antolatze lanetan. Horrezaz gainera, inoiz baino diru gehiago batu da "korrika laguntzaile" kanpainaren bidez.

Sentitu, pentsatu eta ekin euskaraz

Txorierritik Gasteizera abiatu zen Korrika, baina festak aurrera jarraitu zuen gu-re eskualdean. Euriak ez zuen lausotu eguna, eta herri guztietan hamaiketakoak-eta antolatu ziren, herritarrek indarrak berritzeko eta lasterketari buruzko iritziak elkarrekin trukatzeko. Derion musika mota desberdinetako talde gazteek eskaini zuten kontzertua, eta hainbat herritan egindako bazkariak erabat arrakastatsuak izan ziren. Iluntzean, Hori Bai gaztetxeek antolatu-tako erromeriara joan ziren guztiak.




Eta hurrengo egunean berriro goiz altxatu behar. 2.054 kilometro gelditu barik bete ostean, Korrikaren 16. edizioa apirilaren 6an, domekaz, ailegatu zen Gasteizera, han jende uholdea zain zuela. Txorierritik ere ehunaka lagun abiatu ziren Andra Mari Zubiaren plazara, Euskal Herri osotik etorritako euskaltzaleekin batera euskararen



jai erraldoia ospatzera. Beste behin ere euskaraz bizi nahi duela aldarrikatu du herririak. Pirritx eta Porrotx pailazoez esan zuten moduan, "Bihotza, burua, eskuak! Sentitu, pentsatu eta ekin euskaraz!".

Testua: Itxaso Marina
Argazkiak: Aner Mentxaka, Urko Lasarte



Argazkia: Edurne Albaizar

Dublinen eta Txinan bizi diren txorierritarrek eta euskaltzaleek ere eskuz-esku pasatu zuten euskararen lekukoa.

Larrundiak Hasterako
ESPERANZA ALFAMA
Larrundiak Hasterako



- Aste irekien jardunaldiak martitzaren 8an, 15an, 20an eta 27an aste aldiaren 4tik 7ra
- Aste irekien jardunaldiak martitzaren 10etik 13ra
- Martitzatik martitzaren 20ra udalerriaren 3ra

Hizlariak 2014ko: erdi astealdian eta gutxi astealdian

Erdi astealdian

- Pila eta denboraren erlazioak (2.000 ordu)
- Euskararen historia (1.000 ordu)
- Moralitatea (1.000 ordu)

Gutxi astealdian

- Euskararen historia (1.000 ordu)
- Euskararen historia (1.000 ordu)
- Euskararen historia (1.000 ordu)

LME (Larrundi Hasterako Martitzaren)

- Euskararen historia (1.000 ordu)
- Euskararen historia (1.000 ordu)
- Euskararen historia (1.000 ordu)

ENKIDAKO Hasterak

Larrundiaren promozioak

- Euskararen historia (1.000 ordu)
- Euskararen historia (1.000 ordu)

Hizlariak

Larrundi 2 eta 4, LME (BIZK-414) e-mail: alfama@larrundi.net - Informazioa: 94 471 01 51

Literaturaren haritik

Literaturia ekimenak Larrabetzuko hainbat eragile batu ditu bere inguruan. Solasaldia izan dogu batzukaz

Biotz Zulueta eta Ainhoa Artesano, Guraso alkarteko kideak

“Gaztetxoeentzako bilduma arrakastatsuak argitaratu beharko lirateke euskeraz”

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina



Umeak be Literaturia ekimeneko protagonistak izango dira, azokan eurentzako guinea iminiko da eta. Besteak beste, ipuin kontalariak eta antzerkia be izango ditue ekainera arte.

Umeak eta irakurzaletasuna, zelan imini bikote hori hartu-emonetan?

Uste dan baino gehiago irakurtzen dabe. Umea jaioten den momentutik hurbil dogu literatura; izan be, nork ez deutse seme-alabei ipuinik irakurtzen, abestirik kantau, hitz jokorik esan...? Etxeko giroaz ganera, eskolako beharra be ezinbestekoa da.

Nahiko behar egiten da?

Beste erkidego batzuetan irakurzaletasun plan orokorrak imini ditue martxan, eta gu nahiko motel gabilz alde horretatik. Hezkuntza Sailak apustu handiagoa egin beharko leuke horretan, eta eskola liburutegien liburu partida, esate baterako, handiagoa izan beharko litzateke. Umeentzako liburuek be leku handiagoa izan beharko leukie komunikabideetan... Baina gauza onak be egin dira eta oso pozgarria da herri guztiek udal liburutegia izatea. Larrabetzun liburutegi ederra dogu, eta umeek euren lekua dabe han. Era berean, ekimen sorta zabala egiten da eurentzat.

Zer ekarriko deutse ekimenak umei?

Oso ekimen positiboa eta aberasgarria izango da eurentzat, literatura oso hurbiletik ikusiko dabelako. Baina eurentzat ez eze, helduontzat be bai. Jentea literaturara era positiboan hurbiltzea gura dogu eta,

horretarako, ekimen asko izango doguz herrian. Besteak beste, solasaldiak egingo dira idazleakaz. Beste alde batetik, beste ekimen bi ezagutzera emeteko aprobeztatuko dogu: eskolako jantokiaren kudeaketaredua eta Larrabetzuko Azoka.

Kalitatezko euskerazko libururik argitaratzen da umeentzat?

Ipuinak-eta badagoz, baina bederatzi urtetik gorako umeek gaztelaniazko liburuetara jotzen dabe, euskeraz ez dagoelako eurentzat idatzitako literatura erakargarrik. Euskerazko argitaletxeek kalitatea buztartu beharko leukie gaztetxoaren artean arrakasta haundia daben bildumakaz: *Harry Potter*, *Las crónicas de Spiderwick*...

Gurasoek eredua izan behar dabe. Irakurri egiten dozue?

Ni (Biotz) Eleonor Marxen biografia irakurtzen nabil; eta nik (Ainhoa) Katixa Agirrerren *Habitat* irakurri barri dot. Bai, gurasoek eredua izan behar dogu, baina batzuetan gertatzen da, seme-alabakaz ibilbide bera egin arren, batak irakurzaletasun handia dauela, eta besteak, ez hainbeste.

Kultura batzordeko kideak: Mari Feli Etxeandia, Iñigo Martinez de

“Topaketa interesgarria bih

Literaturia Larrabetzun bertan sortutako ekimena da, kultura ingurukoa, eta bereziki euskerazko literatura bultzatuko dauena. Udalak baiezkua emon deutso hain polita ikusi dauen proiektuari.

Zertan aberastuko dau herria?

Lehenengo eta behin, Udala eta hainbat alkarte batu dira proiektuaren inguruan, eta hori oso positiboa da. Bestetik, idazleak herrian bertan egotea erabat erakargarria izango da larrabetzuarrentzat, eta, makina bat ekitaldi antolatuko diranez, giroa sortuko da herrian. Gitxi irakurtzen dogula dinoe, eta ekimenak balio leike

jentea liburuetara hurbiltzeko; euskerazko literaturara, zehazki.

Zelango inizatibeari ekin deutzazue, irakurzaletasuna bultzatzeko?

Liburuak erosteko diru partida igon genduan iaz, eta kultura buletinean liburuak gomendatzen dira hilero. Liburutegian be hainbat ekimen antolatzen dira eta, norbaitek proposamen bat egiten daueanean, beti laguntzen jako. Literaturia ekimenari jagokonez, antolatze beharretan hartuko dogu parte, eta beharrezkoak diran tramiteak erraztuko doguz, azpiegiturak itxi...

“Literatura modu asko dagoz”

Hori Bai gaztetxea eszenatoki erraldoi bihurtuko da apiriletik ekainera bitartean; besteak beste, poesia emanaldiak, kontzertuak eta antzerkia hartuko ditu.

Gazteok ez dozuela irakurtzen entzun dogu behin baino gehiagotan.

Eskolatik hasita eta bizitza akademikoan zehar ezarri deuskuez derrigorrean irakurri behar doguzan liburuak eta idazleak, eta hori arrazoietako bat izan daiteke, beharbada. Uste dot eskolak eskaintza zabalagoa emon beharko leuskigula, gazteok aukeratu daigun zer irakurri gura dogun, eta literatura geure kabuz deskubritu daigun. Beste alde batetik, literaturaz dihardugunean, liburuak baino ez dira kontuan hartzen. Eta, nire eritziz, literatura modu asko badagoz, poesia emanaldiek, antzerkiak, ipuin kontalariak... be badabelako zerikusia literatureagaz.

Gitxi irakurtzen badozue orokorrean, askoz gitxiago euskaraz?

Lagun eta ezagunengana joten badot, ziur nago hamarretik bederatzik erderazko liburuak irakurriko dituela. Ohitura faltagaitik da eta horretan be uste dot eskolak izan leikela eragina. Eskola garaian, adibidez, guk liburu gehiago irakurtzen genduzan gazteleraz euskaraz baino.

Zelango ekarpena egingo deusue Literatura ekimenak?

Gazteriaro orokorrean euskal literaturaren ganeke ikuspegi zabala hurbilduko deus; eta Hori Baikooi be hainbat ekarpen egingo deuskuz, antolatzen doguzan beste ekitaldien moduan. Gutariko askok literatura hurbilagotik ezagutzeko aukerea



izango dogu, eta zaletu geintekoz, ziur.

Eta zuk, irakurtzeko ohiturarik badozu?

Aitortu behar dot oso liburu gitxi irakurtzen dodala. Baina, halanda be, aldizkariak eta egunkariak irakurtzeko ohiturea dot; baita interneten topatutako hainbat artikululu be. Eta gustura. Izan be, horreek be badi-ra literatura.

Literaturia maiatzean

DERIO

–Iñaki Lasa, helduentzako ipuin kontalaria. Apirilaren 30ean, 20:00etan, Larrabari baserrian.

LEZAMA

–Juan Luis Goikoetxearen *Euskaldunen anekdotak II* liburuaren aurkezpena. Maiatzaren 14an, 19:00etan, Uribarri topalekuan.

ZAMUDIO

–*Hamar mezu eta dei bat* ikuskizuna, Patxi Zubizarreta idazlea eta Txema Garces eta Josetxo Goia-Arriben musikarien eskutik. Maiatzaren 25ean, 20:00etan, Zamudiotorren.

LARRABETZU

–Literaturaz berbetan: Uxue Alberdiren *Aulki-jokoa* liburuaren aurkezpena. Maiatzaren 21ean, 20:00etan, Anguleri Kultur Etxean.

–Joseba Sarrionandiaren testuetan oinarritutako *Aulki hutsa* antzezlanaren aurkeztuko du Le Petit Theatre de Pain taldeak. Maiatzaren 22an, 22:00etan, Hori Bai gaztetxean.

ORERETA

–Harkaitz Canoren *Zinea eta literatura* liburuaren aurkezpena. Maiatzaren 6an, 16:00etan Udal Euskaltegia.

–36ko gerra euskal literatura, Edorta Jimenezaren eskutik. Maiatzaren 23an, 10:00etan, Mikelazulo elkarte.

www.literaturaeskola.org

Literaturia, ekainaren 5etik 7ra arte, Larrabetzun

“Bihurtu daiteke”

Zer espero dozue egun horretatik?

Herritarrek parte hartzea, eta kanpoko jentea be gurera etortera animatzea. Bizkaian ez dago hau bezalako ekimenik, eta, harrera ona badau, topaketa interesgarria bihurtu daiteke etorkizunari begira.

Irakurtzeko ohiturarik dozue?

Ahal dogun guztietan (Mari Feli eta Jose Martin). Nik irunsi egiten dodaz liburuak; *El certificado* amaitu barri dot (Iñigo). Irakurri dodan azkena *Gau ilunekoak* izan da (Mari Feli); eta nik, *Lur bat haratako* (Jose Martin).



“Bertara joan arte ez zara egoeraz bene

Nekatuta zeudela topatu ditugu Itsaso Bilbao, Alazne Uribe, María Rodríguez, Iker Oar, Jon Martinez eta Peru Berazategi; abioitik atera berriak. Nekatuta, baina ezin ahaztuzko bidaia egin dutenen distira begietan zutela, hunkituta eta hainbat bizipen kontatzeko irrikan. Txorierriko Institutuko beste ikasle batzuekin errefuxiatu sahararren kanpamentuetan izan dira Aste Santuan, eskola bat berritzeko proiektuan parte hartzen.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Agus Ibarluzea eta ikasleak

Zelan hegaldia?

Aireportuetan-eta ordu asko eman ditugu. Loititik Oraneko aireportura joan gara, eta handik Tindufeko kanpamentuetara. Eta bueltan, berriro... Hala ere, momenturik gogorrena materiala autobusetara sartu behar izan genuenean izan zen.

Zergatik bat egin “Guztiak bat” proiektuarekin?

Hamalau urte betetzen direnean, bertako neska-mutilak atzerrira joan behar dira, ikasketak osatu nahi badituzte. “Said Sgyer” eskolara eraman dugun materialari esker, hezkuntza-eskaintza eta ikastetxeko azpiegiturak hobetu egin dira, ikasleek bertan ikasten jarraitu ahal izateko. Sahararrek garrantzi handia ematen diote hezkuntzari eta euren helburua hau da: ahalik eta gazte gehienek hezkuntza jasotzea. Horrela, oinarri sendoa izango dute euren eskubideak lortzeko. Gaztetxoak pozik doaz eskolara, eurentzat aberasgarria eta ona dena badakitelako. Baina asko dira eta ezinezkoa da guztiak kontrolatzea. Batzuk ez dira klasera joaten animaliak-eta zaindu behar dituztelako. Ume guztiak eskolara joatea lortzeko zer egin zitekeen galdetu ziguten...

Eskolaren berritze lanetan parte hartu duzue, zer egin da bertan?

Ikasgelak margotu ditugu eta laborategia eta informatika-gela atondu eta materialez hornitu dira, besteak beste. Eguzki-panelak ere jarri dira, energia lortu ahal izateko.

Merezi izan du?

Baldintza txarrak izan ditugu lan egiteko



orduan: eraikina hareazkoa da, eta pintatzen ari ginela zuloak agertzen ziren hormetan, eta berriro pintatu behar. Eta haizea bazebilen, area begietara sartzen zen... Bero itzela zegoen... Baina haiek oso pozik zeuden, eta momentu guztietan ematen zizkiguten eskerrak, guri begira... Azken egunean jai bat eta guzti egin zuten gure omenez... Ondorioz, gu ere pozik egon behar. Merezi izan du, bai!

Zelan antolatu zineten bertan?

Lau laguneko taldeak osatu genituen eta talde bakoitzak ostatu hartu zuen etxe banatan. Etxeak hareaz daude eginda, eta egoera horretan nola bizi daitekeen pentsatzen da hasiera batean. Baina etxera sartu eta oso erosoak direla konturatzen zara, ohitura hartzen duzu eta eurak ere gustura sentiarazten zaituzte... Askok dira etxean: aitita-amama, aita-ama, osaba-izebak, seme-alabak... Bazkaltzeko orduan nahiko estu sartzen ginen “haima”n... Baina oso garbiak dira; etxea oso garbi dute.

Zer moduz konpontzen zineten hizkuntzarekin?

Nagusiek ingelesez eta frantsesez egiten dute berba, eta ume gehienek badakite gaztelania udan Euskal Herrira eta Estatura etortzen direlako. Guk ere arabiera apur bat ikasi genuen.

Eta basamortuko gogortasunarekin?

Gogorra da hasieran, gure ohiturak eta bizi-baldintzak erabat ezberdinak direlako eurenkin alderatuta: beroa, haizea, lurrean egiten genuen lo, eskuz jaten genuen... Harea hanketatik kentzen ematen genuen egun osoa hasieran... Baina apur-

“Hezkuntza ahalik eta gazte gehienek jasotzea dute helburu; horrela, oinarri sendoa izango dute euren eskubideak lortzeko”

“Baldintza txarrak izan ditugu lan egiteko orduan, baina eurak oso pozik egon dira eta merezi izan du”

“Gehien gustatu zaiguna? Gauza asko, bertako jendea ezagutzea, batez ere”

tan ohartzen”

ka-apurka moldatzen zara egoerara. Jateko orduan ere zalantzaren bat izan genuen, baina oso adeitsu direnez, platerera ateratzen zuten guztia jan behar. Tristatu eta kezkatu egiten ziren, osterantzean.

Turismo apur bat ere egin duzue...

Bai, dunak ikusi ditugu, parlamentua, merkatua, emakumeen eskola, museo militarra...

Zer da gehien gustatu zaizuen?

Bertako jendea ezagutzea, gehienbat. Eta horrezaz gainera, dunak eta museo militarra... AFAPREDESA Saharako preso eta desagertuen aldeko elkarteak hitzaldia eman ziguten euren egoerari buruz. Oso inportantzia handia ematen diote bertan gertatzen dena guk jakiteari.

Saharako presidentearekin egotekoak zinen...

Bai, baina azkenean ez zen posible izan. Palamentuko presidente eta parlamentariekin, oster, izan ginen. Hauek ere Sahara herriaren egoera jakinarazi ziguten, eta arazoa nola konpon daitekeen galdetu. Krisiari buruzko galderak ere egin zizki-



guten.

Ospitalera egindako bisitaldiak hunkitu zintuzten bereziki...

Laguntza leku guztietan behar badute ere, ospitalean dagoen egoera benetan oso larria da: jendea pasilloetan dago eserita, seruma jarrita dutela; lurrean harea dago; euli asko... Medikuek euskaldun birekin egoteko aukera izan genuen. Ebakuntza egin zioten lagun bati eta nahiko ondo atera zela esan ziguten. Egoera hain txarto dago-

“Laguntza leku guztietan behar badute ere, ospitalean dagoen egoera benetan oso larria da”

GUREAN
WIRTSCHAFTS-DEPTSCHEN, S.L.

¿QUÉ ES EL GUREAN?

El Gurean es una empresa de servicios de consultoría y asesoría en el ámbito de la gestión empresarial. Nos dedicamos a ayudar a las empresas a mejorar su eficiencia y rentabilidad.

¿QUÉ SERVICIOS OFRECEMOS?

• Asesoría en gestión empresarial
• Asesoría en finanzas
• Asesoría en marketing
• Asesoría en recursos humanos

¿QUÉ BENEFICIOS OFRECEMOS?

• Experiencia y conocimiento en el sector
• Equipo de profesionales altamente cualificados
• Precios muy competitivos

¿QUÉ NOS DIFERENCIA DE LOS DEMÁS?

• Nuestra experiencia y conocimiento en el sector
• Nuestro equipo de profesionales altamente cualificados
• Nuestros precios muy competitivos

Hemen
reziketa lana da

Elaboración de productos de repostería y pastelería.

¿QUÉ NOS DIFERENCIA DE LOS DEMÁS?

• Nuestra experiencia y conocimiento en el sector
• Nuestro equipo de profesionales altamente cualificados
• Nuestros precios muy competitivos

ELORRIETA
INSTALACIONES

¿QUÉ ES ELORRIETA?

Elorrieta es una empresa de instalaciones eléctricas y de telecomunicaciones. Nos dedicamos a proporcionar soluciones integrales para nuestros clientes.

¿QUÉ SERVICIOS OFRECEMOS?

• Instalación de sistemas de iluminación
• Instalación de sistemas de climatización
• Instalación de sistemas de telecomunicaciones

¿QUÉ BENEFICIOS OFRECEMOS?

• Experiencia y conocimiento en el sector
• Equipo de profesionales altamente cualificados
• Precios muy competitivos

¿QUÉ NOS DIFERENCIA DE LOS DEMÁS?

• Nuestra experiencia y conocimiento en el sector
• Nuestro equipo de profesionales altamente cualificados
• Nuestros precios muy competitivos

URRUTIA KALEA, 12 BARRIO DE URRA 48150
94 454 03 85
639 57 98 48 - 639 58 35 47

TXORIERRI
BLOQUE

¿QUÉ ES TXORIERRI?

Txorierri es una empresa de servicios de consultoría y asesoría en el ámbito de la gestión empresarial. Nos dedicamos a ayudar a las empresas a mejorar su eficiencia y rentabilidad.

¿QUÉ SERVICIOS OFRECEMOS?

• Asesoría en gestión empresarial
• Asesoría en finanzas
• Asesoría en marketing
• Asesoría en recursos humanos

¿QUÉ BENEFICIOS OFRECEMOS?

• Experiencia y conocimiento en el sector
• Equipo de profesionales altamente cualificados
• Precios muy competitivos

¿QUÉ NOS DIFERENCIA DE LOS DEMÁS?

• Nuestra experiencia y conocimiento en el sector
• Nuestro equipo de profesionales altamente cualificados
• Nuestros precios muy competitivos

eta ikasleak buru-belarri hasi ziren diru-laguntza lortzeko gutunak prestatzen, hara eta hona deika... Hainbat ate jo ondoren, erakundeak ere proiektuan inplikatu eta 9.460 euro batzea lortu zuten: Derioko Udalak 5.005 euro jarri du egitasmorako; 2.305 euro, Sondikako Udalak; 1.800 euro, Larrabetzuko Udalak; eta 350 euro, La Caixak. Batutako dirua material hau erosteko erabili da: ordenagai-luak, eguzki-plakak eta horiek jartzeko euskarriak, kanioi bat, laborategiko materiala, eta brotxak eta pintatzeko materiala, beste batzuen artean.

Hala ere, hau gazteek aurrera eramandako iniziatiba bakarra ez dela izan aipatu beharra dago. Horrela, Agenda 21 egitasmoaren arduradunekin batera, testu-liburuak, ipuinak, nobelak, koadernoak, jolasak... bildu zituzten kanpamentuetara agintzeko, eta Gabonen ostean janari bilketa ere egin zuten. Era berean, hainbat ekimen prestatu dituzte bidaia ordaindu ahal izateko: kamisetak, otzarak zozketatu... Izan ere, hegazkin-txartelak 600 euro inguru balio izan du, eta horrezaz gainera, ikasle bakoitzak egunean bost euro ordaindu die ostatu hartu duen etxekoei.

Harri-koskorra, basamortuan

Batxilergoko lehenengo eta bigarren kurtsoetako 27 ikasle eta institutuko hiru irakasle Aste Santuko oporraldian abiatu dira basamortura, Argeliara. Hegalaldia Laudioiko ikastolako ikasle-irakasleekin, Nuyum elkarteko ordezkariekin eta Euskal Herriko Gazteriaren Kontseiluko gazteekin egin dute. "Said Sgyer" ikastetxea berritzeko materiala hegazkinean eraman dute eta kanpamentuetaraino konboiez


“Eskolako azpiegiturak hobetzeaz gainera, informatika gela eta natura-zientzien laborategia sortu dira, besteak beste”

“Elkartasun-bidaia izan da, kulturarekiko errespetutik egin dutena”

garraiatu dute.

Ikasleak lau lagunek osatutako taldeetan banatu dira eta talde bakoitza familia saharar baten etxean hartu du ostatu. Ikasleek poltsa bina eraman dute bidaia-ara: bata, euren gauzekin; eta bestea, etxean uzteko artikuluz beteta: janaria, higie-ne-produktuak, botikina, arropa...

Basamortuan astebete eman dute, eta oso parte-hartze aktiboa izan dute eskolaren berritze lanetan. Eskolako gelak pintatu egin dituzte eta informatika gela eta laborategia atontzen lagundu dute. Turismoa egiteko astia ere eduki dute eta hainbat leku esanguratsu bisitatu dute: Parlamentua, Olof Palme emakumeen eskola, Saharako gazteen egoitza, irrati-telebista, ezinduen eskola, Rabuniko ospitalea eta dunak, batzuk aipatzearren. Baina, batez ere, bertako jendea, horien ohitu-




rak, kezak eta itxaropenak, herri sahararren historia... ezagutzeko aukera ahaztezina izan dute.

Solidaritatezko bidaia honek helburu bikoitza izan du: alde batetik, errefuxiatu sahararren hezkuntza-baldintzak hobetzeko ekarpena egin; eta bestetik, ikasleek beste errealitate bat ezagutu eta horren gainean hausnarketa egitea. Elkartasun-bidaia izan da, kulturarekiko errespetutik egin dutena, hegazkina hartu baino lehen adierazi ziguten legez, "egoera horretan 30 urte baino gehiagotan bizi diren pertsonengandik badagulako zer ikasi". Txorierriko Institutuko gazteek harri-koskorra eraman dute basamortura; Argeliako basamortuan oso garrantzitsua izan den harri-koskorra, hain zuzen ere. Sahararangandik ikasitakoa ere balio handikoa izan da eurentzat.

Hästens
denda
Qualité garantie
chaque

www.haustextil.com



ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Sektoria • 94 434 51 47 • DERIO

“Egiak” eta ‘egia santuak’ batu

Juan Luis Goikoetxeak oraintsu kaleratu dau anekdoten bigarren liburua, *Euskaldunaren anekdotak II*. Hau be Mende balde Kultura Alkartek argitaratu dau eta aurrekoak bezala, CDa dakar Udane Goikoetxeak editatua, irakurri ez eze entzun be egin ahal izateko. Azala modernoagoa da orain, Aritz Albaizerrek diseinatu a. Liburuan ‘Goikok’ jasotako 91 anekdota agertzen dira eta, tartekatuz, beste 31 pasarte labur, Villasanteren liburutik hartuak.



Testua eta argazkiak: Bestorrene

Anekdotak ez dira sekula amaitzen?

Euskaldunen artean bizi garenean eta eus-
kera, adibiderako, ura dala esaten badogu,
uretan arrainak dira, hau da, anekdotak.
Horreek arrantzatzen, batuten, ahalegindu
naz. Eguneroko bizitzan dagoz, niri kontau
egin deustiez: batzuk, nire ikasleek: Bakar-
nek, Leirek...; baita beste askok be: Gabrie-
lek... Horreek inork kontatuko “egiak” di-
ra, eta norberak bizi izan dituanak “egia
santuak”. Horregaitik esaten da sarrerari,
hemen dagozala, batetik “egia” diranak,
eta bestetik “egia santuak”. Hori gure la-
gun batek esaten dau: “Egia dok beste ba-
tek kontaukoa, egia santua dok heuk ikusi

doana".

Euskerak mailak eta adinak garrantzirik badabe anekdotak ulertzeko?

Bai, alde handia dago. Euskal mundutik gatozenok errez jarraituten deusagu hariari, berben jokoari... Euskera bizitik hartuta dagoz, eta euskaldunak berez-berez ulertuten ditu, askotan bigarren zentzuko kontuak dira-eta. Euskaldun barri batentzat ikasi beharreko zer edo zer izaten da, mila klitxe, esamolde... beharrezkoak diranak. Euskerea komunikatzeko tresna ez eze kultura transmisinoa be bada. Gura badogu lehengo kulturea hurrengoengana joatea, anekdotak sistema ona dira euskera

ederra hurrengoei pasatzeko. Anekdoteak neurri bat dauka, eta osoan ulertuten da, esaldiren bat ulertu ez arren, zentzua errez jasoten da. Ulertuten ez danean, euskareagaitik baino gehiago da, giroa, baserri giroa, tratanteen giroa... ezagutu ez dalako. Anekdota batzuk geure aurrekoen mundua erakusten deuskue askotan, eta beste batzuetan geurea, gaur egunekoa.

Ahozko euskerea idatzira pasatzeko orduan, zeintzuk izan dozuz arazoak eta irizpideak?

Oker ulerturik izan ez daiten esan behar da, anekdoten erredakzioa, estiloz idaztea neure lana dala, nahiz eta besteren

[illegible]

OBRAS Y REFORMAS
C/ALFARO, 100 - 41013 SAN SEBASTIAN DE LOS REYES
Comotxa
Revestimientos Integrables
Cerramientos, luminotecnica
Información y visitas especiales: 7 líneas
-BIFONICO-
94 94 000 0000 - (+34) 94 900 00 00
94 94 000 000 - (+34) 94 900 00 00



Spazio europeo: un'idea che nasce da lontano, ma rappresenta l'ambizioso progetto di unire l'Europa.

Salerno (S)
Parco di S. Maria (S)
 1999 - 1999 - 1999 - 1999
 1999 - 1999 - 1999 - 1999

ten dira liburuan”

“Gura badogu lehengo kulturea hurrengoengana joatea, anekdotak sistema ona dira euskera ederra hurrengoei pasatzeko”

batek kontatua izan; batzuetan minidiskez grabatuz batu dira herrietan; horreetan euki dot idatzira pasatzeko lorra. Arazoak badagoz horretan, hurreko berbakera erabili gura dalako. Edozein baserritarrek edo arrantzalek deituten dau Bizkaia Irratira, baina ez da ausartuten Euskadi Irratira deituten, berarentzat urruntasun bat dagoalako. Durangoko batek edo Ondarroakoak edo Txorierrikoak anekdotea kontetan badau, liburuan idaztean, euren euskeratik ez urrunegi joatea gura da. Txorierrikoak esaten deusunean “deurie”, inoz ipinten dot komatxo artean “deurie”, eta gero hurrengo esaldian, eta gehienetan bizkaiera estandarrean, “dabe”. Baina batzuetan, gatzari edo piperrari eusteko, “deurie” sartzen dot. Gogoa da ez urrundutea euren euskeratik; betiko euskera hori idatzira ekarri danean, ez gehiegi aldrebestutea.

Liburua CD bategaz dator. Bertan idatzitakoa grabatu egiten dozue. Zergaitik?

Euskaldun asko edozein uritan, edo Txorierrin berton, sakabanatuta bizi da. Batzuek ez dabe euskaldun talderik inguruan, euren euskerea entzun eta alkarregaz bizitzeko. Holako CD baten, oraingo euskera bizia eta lehengoa be entzuten da; esaterako, Frai Bartolomeren anekdotea orain 200 urtekoa. CDa beharrezkoa da; bakarrean irakurria ez dogu entzuten eta gaurko gazteen euskereak askoz agiriago dauka erdal doinua geure lehengoak baino. Hau da modu bat, lehengo azentuak-eta jaso ahal izateko.

Holako liburuak badabe salmentarik?

Bizkaieraz atarateak muga jakin bat dauka; gero, erabilten dozun gaia be aintzat hartu behar da, pasadizoak, interesgarriak dira hainbestereentzat. Euskerazko liburua –irakaskuntzakoa ez danean– ondo dabil 1000 ale salduten diranean, eta liburuen salmenta hain behera etorri dala ikusita, honen erako liburua ondo dabil lehenengo urtean 300 ale saldurik. Beste kontu bat da, ostein interneten bidez zabaldutea-eta.

Nork irakurtzen ditu liburu mota horrek?


Aurreko liburua irakaskuntzan be erabili dana badakit, batez bere alfabetatze mailetan edo euskaldun barriak maila bat daukanean. Beste alde batetik, holako liburua euskaltzalea danak irakurten dau, eta euskeran bertan zeozer barria topetan dabilenak. Honetan be ahalegin du naz euskerearen ederrak batuten. Kontestua anekdotea da, baina horren barruan euskera ederra doa, eta euskaltzaleak beti topetan dau mila adibide eta kontu jakingarri. Ahozko euskerearen ederrak datoz pasadizo benetakoen corpusean eta etorri be irribarrerako ikutuak gozotuta.

Liburuaren aurkezpena egiteko ideia- ren bat pentsatuta ei daukazu.

Aurkezpena maiatzaren 14an izango da Lezamako Uribarri Topalekuan, arratsaldeko 8etan. Bertan anekdotak kontatu deustezan lagun batzuk be egongo dira.


Jubilatuta zagoz, liburua amaituta, proiekturik badaukazu?

Ez proiektu gitxi! Irakaskuntzaren ganean be idatzi gura dot. Hainbeste urteko esperientzia, norberak ezagututako irakaskuntza, metodologia, gaztearen arazoak, adibideak emonta..., hori guzti hori liburu baten azaldu gura dot. Bestalde, idazteko be mila gauza ditu norberak, urtero, gitxienez liburu bat. Baina beste alde batetik lagunei ezetz esatea gatxa da. Gu hiztegi gintzan ibili gara beti, eta iaz eta aurten hiztegiari dedikatu deusat ordu piloa, ze gure 3000 Hiztegia eta, amaituten ez diran lanak dira. Gero, Mendebalde Kultura Alkartean be argitaratzen dot, *Karmel* aldizkarian be bai, Euskaltzaindiko Jagon sailean be badihardut... Orain astia daukat gauzak lehen baino sakonago ikertzeko. Nobela moduan idatzi beharra be sentiduten dot, ze inori esan eta inor animatu idazteko eta neuk idatzi ez, hori ez dot egingo, betebeharra eta gogoa sentiduten dot, tokatu egiten jat.



Jai usaina dago herrian

Etxeko lanak ondo baino hobeto egin dituzte Derioko Udalak eta herriko kultura eta kirol taldeek. Halako lan handiaren emaitza hurrengo orrialdeotan duzue: San Isidro jai egitaraua, bete-beterik datorkiguna musikaz, kirolez, entretenimenduz, proposamenez, txapelketaz, animazioz.... Eta aurten, gainera, egun gehiago izango dira!



Kerobia taldea

Maiatzaren 8a, barikua

19:30: Konpartsen jaitziera, Ardora Barrura eta Marmara Marching Band fanfarrek girotua.

20:30: Pregoia, taekwondo taldearen eskutik. Txupinazoa eta txitxi-burruntzia.

22:30: Kontzertuak, txosnagunean: Auskalo non, Kerobia, The Uski's eta Luhartz. Tximintx euskara elkartearen eskutik.

Maiatzaren 9a, zapatua

10:00-13:00: Argazki Rallya, kiroldegian. Derioko Argazki Taldeak antolatua.

10:00-14:00: "Uribe Kosta" Futbol txikiko Torneoaren finalak, kiroldegian. Arteaga Fk-k antolatua.

11:30-14:00: Ipuinetako pertsonaien tailerak eta ipuin kontalaria, Sollube kalean.

18:00: Dantzen agerraldia, Lainomendi dantza taldearen eskutik.

18:00: 04:00: VII. Jam Hip-hop, txosnagunean. Arte Urbano taldearen eskutik.

19:30: Antzerkia: Sollube kalean: *Circode-*

lirio, Salitre antzerki taldearen eskutik. Arrigorriagako Clown Jaialdiaren haritik.

23:00: Berbena, Herriko Plazan: Alai taldea.

Maiatzaren 10a, domeka

09:30-11:00: Sukalki Eguna, Ipar-Alde abesbatzaren eskutik. Izen ematea, azokan.

10:00: Euskal Herriko Fitness eta Fisiokulturismo Txapelketa, kiroldegian. Derio Komunikazioak antolatua.

10:30-14:30: Elikagai eta eskulan tailerren azoka, eskolan. Txakolina, tailerrak, pintura txapelketa...

11:00: Tokiko II. Frontenis Txapelketaren finalak, pilotalekuan. Atxiki pilota taldearen eskutik.

18:00: Sukalki, briska eta pintura lehiaketan sari banaketa. Txitxarrilloa.

Maiatzaren 13a, eguaztena

19:00: Fanfarreak.

20:00: Ikus-entzunezko animazioa, pantaila erraldoian. Nagusien Etxearen ondoan.

22:00: Erregearen Koparen Finala: Athletic-

Barça, Gernikako Arbola etorbidean.

Maiatzaren 14a, eguna

19:00: Idi probak.

Maiatzaren 15a, barikua. San Isidro eguna

12:30: Marrazki lehiaketa, Odol Argia taldearen eskutik.

11:30-14:00: Haur parkea.

16:30-19:30: Haur parkea. Gazteentzako ekintzak, Mikel Deunaren plazan. Hegaldi-simulagailua, sumoa, akuilu makilak eta skatea.

17:00: Umeentzako herri kirolak eta jolasak, probalekuaren ondoan. Kulki taldearen eskutik.

18:00: Marrazki txapelketaren sari banaketa.

19:00: Idi probak.

21:00: Profesionalen pilota partidak, pilota-lekuan. Ostein, Horkonpon orkestra, txosnagunean.

Maiatzaren 16a, zapatua

San Isidro parrokiaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldia

3x3 futbol partidak, Athletic Fundazioaren eskutik.

16:00-00:00: III. Gazte Topaketak 'Cemen-DerioRock', eskolan. Santzoka elkarteak antolatua.

18:00: Kale antzerkia, Sollube kalean. *Filamento el farolero*, Sabin Larrearen eskutik.

Batukada.

23:30: Orkestra ikuskizuna, txosnagunean.

Maiatzaren 17a, domeka

08:00: XXIII. Ibilaldi neurtua, Herriko plazan. Untza mendi taldeak antolatua. Umen irteera, 09:00etan.

11:30: Umeentzako jolasak, Sollube kalean.

17:00: Ibilaldi neurtuaren eta konpartsen sari banaketa.

19:00: Bilbainadak.

Jaien amaiera eta txokolatada.




Derioko jaiak

Euskal dantzak LAINOMENDIgaz



Derio
Cultura | Arte



Maiztaren 9an
18:00etan
DERIOko plazan



Berriandak
Bilbopreak
Pierlambinotak
Otxark
Urdaizola berbera

944 44 22 00
www.pungarri.com

ESTUDIOS

Plaza de España, 20 (a la altura
de la Puerta del Sol)
Tel: 944 54 50 12

10

Holena Plaza, 2 - 47010
SAN PABLO (BURGOS)
Tel: 945 45 27 16

IKASTEGIA

BASKOLAN
CONSTRUCCIONES

**Partonak, teilatuak,
larruak eta gainak
konponen eta iragazten egiten**

I. BASKOLA BELLA, S. L.
C/ALFARO 10 46100 BELLATERRA
09/04/2015 11:00 AM

TEL: 94 544 44 00
Tel: 94 544 44 00



Kalki da urteko lehen

Berriak, zaharrak, koloreak eta urteko lehenak



BERRIAK
ZAHARRAK
KOLOREAK

TEL: 94 484 88 48
Fax: 94 484 88 70
www.kalki.com

Desenheko proiektuak
Berrak eta zaharrak
eta urteko lehenak

**ZIRIBADA
JATETXE**



94 454 5045
Gandakari Plaza, 1
40100 BILBAO





CemenDerioRock, gazteen topagunea

Santzoka gazte elkarteak CemenDerioRock ekimena antolatuko du hirugarren aldiz maiatzaren 16rako. Arrastiko 4etan *Long-board Old Skool* txapelketa-erakustaldia egingo dute. *Long-boarda* skatearen modalitatea da eta txapelketan inguruko gazteen hartuko dute parte. Uribe parketik Institutuko aparkalekuta bitarteko ibilbidean zehar euren trebetasuna erakusteko aukera izango dute.

Kontzertuak arrastiko 7etan hasiko dira eta eszenatokira Derioko talde hauek igoko dira: In-Fusión, Butronian eta Mental Heraser. Kontzertuen arteko bitarteetan ardo das-tatzea, txapelketa bat, txalaparta eta joan den

urteko kontzertuen eta festaren bideo emanaldia izango dira. Horrezaz gainera, barra-txoa jarriko dute eta bertan merke-merke salduko dituzte kalimotxoa eta garagardoa. Kontzertuen ostean, kalejira eta poteoa egingo dituzte, perkusio brasildar talde batek girotuta.

Afaria gaueko 10:30ean egingo dute. Elkartekoek mahaiak, aulkiak eta plantxa jarriko dituzte eta koadrila bakoitzak etxetik eraman beharko du jatekoa, han prestatzeko. Musika, Chalwa Band reggae taldearen kontura. Ekitaldia gaueko 12etan amaituko da; hala ere, ziur asko, gazteak herriko festako gauari heltzeko prest izango dira afalostean.

Kale-antzerkia

Antzerkia literatur genero bat da, eszenatoki batean ikusleen aurrean antzeztu diren lanak hartzen dituen. Bada, Derion kalean ere badugu antzerkia. Salitre Konpainiak *Circodelirio* lana aurkeztuko du maiatzaren 9an, 19:30ean, Sollube kalean. Ekitaldi hau Arrigorriagako Clown Jaialdiaren haritik antolatu da.

Beste alde batetik, Sabin Larreak *Filamento el farolero* lana antzeztuko du maiatzaren 16an, arrastiko 6etan. Hau ere Sollube kalean izango da. Zirku ikuskizun honetan Filamentok, klownaren eta mimoaren arteko farolari apal eta atsegin batek, lan zailtasunei egin beharko dizkie aurre.



Sabin Larrea



Egun gehiago disfrutatzeko



Zorionekoak dira derioztarrak; baita txorierritarrek ere: San Isidro jaiak egun gehiagotan ospatuko dira aurten; maiatzaren 8an hasi eta 17ra bitartean. Arrazoia hau da: Udalak eta herriko kultura eta kirol taldeek gero eta proposamen interesgarri gehiago egiten dituzte, eta denbora behar da ekintza horiek guztiak egin ahal izateko.

Gainera, ekintza horietako asko oso

arrakastatsuak izaten dira eta jendetza handia batzen dute. Ekintzon artean hauek aipa daitezke: Sukalki Eguna, azoka, ibilaldi neurtua, pilota partidak, futbol txikiko txapelketa... Beste arrazoi bat da ez dela nahi ekintza batek besteari protagonismoa kentzea. Beraz, egun gehiago izango ditugu aurten musikaz, txapelketaz, idi probaz, kirolaz, kulturaz... gozatzeko eta jai giroan murgiltzeko.

Athletic, eup!

Hogeita lau urte pasa dira Athletic Errege Koparen finalera heltzen ez dela, eta ikusmina handia baino handiagoa da. Derion 7x4ko pantaila erraldoia jarriko dute maiatzaren 14an, nahi duten guztiek hantxe ikus dezaten Athleticen Barçaren kontra jokatuko duen partida. Horrezaz gainera, 300 aulki ipiniko dira, ikusleek eroso-eroso ikusi ahal dezaten finala.

Fanfarre bik girotuko dute herria eta konexioak egingo dituzte telebistarekin, Valentzian dagoen partida aurreko giroaren berri izateko. Athleticen Barçaren kontra jokatutako azken finalaren irudiak ere emanango dituzte. Ekitaldi honen helburua da herria girotzea eta Athleticen jokalariei adorea ematea, urrunetik bada ere. Ea hainbat urte pasa ostean kopa etxera ekartzen duten!



Berdintasuna, jaietan ere bai

Urteen buruan emakume eta gizonen arteko berdintasunerako bidean aurrerapauso garrantzitsuak egin badira ere, oraindik lan handia dago egiteko. Eta aurtengo jaiak mezu hori zabalduko dute lau haizeetara. Elikagai eta eskulan tailerren azokan estand berezi bat jarriko da "Aurpegia eman berdintasunaren alde" leloarekin. Estandera hurbiltzen diren guztiek emakume eta gizonen arteko berdintasunari keinua egiten dion argazkia ateratzeko aukera izango dute.

Beste alde batetik, aurreko urteetan bezala, hainbat ekimen egingo dira azokaren barruan: txakolina dastatzea, umeentzako tailerrak, zarpantzarrak eta pintura txapelketa, banaka batzuk aipatzearren.



Derioko jaiak

 **KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA**

Las Leñas, 7 - 48100 941 91 14 94
18 001 - BILBAO

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

SEMINARIO DE LA ESCUELA AGRI-
CULTURAL DE LA PL.
19001
LEZARZA
04363600
04363601

 **PENELE AGARRIFTA**

Marina, 11
40100 OLEA (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

 **MAMEN**

Marina, 11
40100 OLEA (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

LORECARRE

LAURENTE DE JUANES 1 01011
Bilbao (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

MICHEL

Marina, 11
40100 OLEA (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

**multiprecio
Ralea**

LAURENTE DE JUANES 1 01011
Bilbao (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

Mascolas Maider

LAURENTE DE JUANES 1 01011
Bilbao (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

**DERIKO
HERRINO TABERNA**

**OSTIRALERO
SARTENAKO**

OSTIRALERO
SARTENAKO
10 €

LAURENTE DE JUANES 1 01011
Bilbao (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

**MARMOLGINTZA
GOYO**

LAURENTE DE JUANES 1 01011
Bilbao (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

GROW 'N' ROLL

LAURENTE DE JUANES 1 01011
Bilbao (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

Leizalde

LAURENTE DE JUANES 1 01011
Bilbao (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

ATARIK KANTXUA

LAURENTE DE JUANES 1 01011
Bilbao (Leizor)
Tel. y Fax: 941 451 07 09

Euskerea, Bilbon mintzagai

Gero eta euskaltzale gehiagok aldarrikatzen dabe euskalkien garrantzia. Mendebalde Kultura Alkartekoek be ildo horri jarraitzen deutsie. Eta horretarako, urtero euskerearen inguruko jardunaldiak antolatzen ditue orain dala 13 urtetik hona. Aurreko urteetan, esaterako, literaturea, administrazioa, euskera teknika edo hezikuntza jorratu ditue. Aurten, aldiz, euskerearen erabilerea eta transmisioa izango ditue mintzagai maiatzaren 8an eta 9an, Euskaltzaindiaren egoitza nagusian, Bilboko Plaza Barrian. “Gure ustez, badago preminea euskerearen inguruko alderdi batzuk lantzeko eta ikertzeko. Eta eztabaida zabala pizteko helburuagaz sortu genduzan jardunaldiak”, esan deusku Eneko Barrutia alkartearen presidentek.

Gai nagusiaren haritik, hainbat konturen ganean egingo da berba jardunaldietan: euskaldun izatea zer dan zehaztuko dabe, gizarte globalizatu bateko euskerearen erronkak azalduko dira, edo euskereak izan dituan aldaketen barri emongo da, besteak beste. Hizlariak jagokenez, honeek

hartuko dabe parte: Iñaki Martinez de Luna, Iziar Basterretxea, Iñaki Gaminde, Kike Amonarriz, Mattin Irigoien, Estepan Plazaola, Juanjo Zorrilla, Alberto Mardoneze, Manu Etxebarria, Akaitze Kamirua, Fredi Paia eta Esti Amorrortu.

Hitzaldiak ez dira goi-mailakoak izango eta aurreko urteetan be “jente arruntari” egon dira zuzenduta. “Adituentzat badagoz unibertsitateko kongresuak. Gure jardunaldietan, berriz, gaiak ez dira oso teknikoak, edozeinek ulertzeko modukoak dira. Giza-gaiak dira, interesa pizten daben horreetakoak”. Hori dala-eta, hitzaldietan

parte hartzeko gonbita egin dabe antolatzailleek. “Jardunaldiak ez dira eskola modukoak, hau da, adi egotekoak eta gero etxera joatekoak; alkarregaz egon, hitz egin, aburua trukatu alkarregaz... Aberasgarria da guztion eritxia entzutea”.

Parte hartzea bultzateko, liburu plaza-ratzen dabe Mendebaldekoek jardunaldiak egin baino lehen, eta ha hitzaldietara joaten diranen artean banatzen da. Bertan gaien ganeko bibliografia, eta hitzaldien mamiak azaltzen dira. Liburuak xede bi betetzen ditu: “Alde batetik, materiala jartzen dogu ikertzaileen eskura; bestetik, hitzaldiei adi-

Testua: Gaizka Eguskiza



“Jardunaldiak jente arruntari dagoz zuzenduta, jorratzen doguzan gaiak ez dira oso teknikoak izaten”



adi egoten lagutzen deutsegu entzuleei. Holan, ez dabe apunterik hartu behar”.

Edonork dau hitzaldietara joateko aukerea, baina 30 euroko matrikula ordaindu beharko dau -10 euro, ikaslea bada-. Dirua emoteko eperik ez dago. “Askotan hitzaldiaren egunean bertan etorri jakuz diruagaz sartu gura dauen bat baino gehiago. Baina ez kezkatu, kanpoan inor ez da geldituko eta”. Orain arte pozik dagoz Mendebalde Alkartean eduki dauen asistentzia kopuruagaz, baina euren ustez jardunaldietara jente gehiago etorri ahal izango zan. “Batzueta ez dogu ekimena behar dan moduan jakinarazo, ziurrenik. Ganera, kultura kontuetara nekez joaten da jentea; nahiago dabez kirola edo beste ekitaldi mota batzuk”.

Bizkaiera indartuz

Mendebalde Kultura Alkartea 1996an sortu zan Alfonso Irigoien zuzendaritzapean. Mendebaldeko hizkerea aztertzea, egokitzea eta prestigioa emotea, eta euskara bera indartzea dira helburuak. “Irakasle talde batek, lagun talde batek, osatu eban Mendebalde taldea. Hilean behin egiten zituen bilerak, eta bertan eztabaidatu egiten genduan. Horreetan jarri zan jardunaldien hazia, talde zabala go bat osatu gura gendualako”, azaldu deusku Barrutiak. Jardunaldiez ganera, *Euskalingua* aldizkari digitala -urtean bitan- eta beste zenbait argitalpen plazaratzen ditu taldeak.

Mendebalde alkartea bizkaiera bultzatzearen sortu zan. Eta hori Bizkaian ez eze, Arabako eta Gipuzkoako herri batzueta be egiten da. Hori dala-eta, Mendebalde jarri eben izena. “Gure ustez, gauza batzuk ondo finkatuta dagoz: morfologia, aditzak... Halandaze be, hainbat arlotan behar itzela dago egiteke, erabilera aldetik, esaterako. Era berean, batueran ez da bizkaiera aintzat hartzen, eta presentzia nabarmenagoa izatea gustatuko litxakigu. Horren alde Euskaltzaindiak zerbaite gehiago egin ahal izango leuke, ziurrenik, baina ez deusagu ezer leporatu gura akademiari. Gauza batzuk ondo egin dira eta beste batzuk ez, beste barik. Eta gu ez gagoz inondik inora batuaren kontra, baina uste dogu euskalkiek euskereari aberastasuna emoten deusiela”.



Fredi Paia bertsolaria.
Argazkilaria: Conny Beyreuther.
Iturria: Bertsolari Aldizkaria

Jardunaldien egitaraua

Maiatzaren 8a, barikua

16:00: Harrerea eta dokumentazioa banatzea

16:30: Aurkezpena – Eneko Barrutia
–EUSKALDUNAK, ZENBAT?

Moderatzailea: Eneko Barrutia

17:00: *Zelako euskaldunak, halako kopurua... edo Soziologiaren erantzuna*. Iñaki Martinez de Luna

17:25: *Hizkuntza erabilera gizarte global eta modernoetan*. Iziar Basterretxea

17:50: Itaun-erantzunak

18:00: Atsedena

–EUSKALDUNAK, ZELAKOAK?

Moderatzailea: Kepa Altonaga

18:30: *Prosodiaren transmisioa eta beronen azterketaz*. Iñaki Gaminde

19:00: XXI. mendeko euskaldunak: “Nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!”. Kike Amonarriz



Luis Baraizarrari egingo deusie omenaldia

19:45: Itaun-erantzunak

20:00: Amaiera

Maiatzaren 9a, zapatua

–NORBERE EUSKEREARI EUTSI

Moderatzailea: Esti Izagirre

9:30: *Nola eutsi diogu gure euskarari?*

Mattin Irigoien

9:55: *Herriko berbeta oinarri, ahozko jarduna hobetzeko ahaleginetan*. Estepan Plazaola Otadui

10:20: *Euskararen transmisioa Zallan*.

Juanjo Zorrilla eta Alberto Mardones

10:45: Itaun-erantzunak

11:00: Atsedena

–TRANSMISINOAREN ONDAREA

Moderatzailea: Maribi Unamuno

11:15: *Transmisioaren ondarea*. Juan Manuel Etxebarria

11:20: *Ingurumari kulturalaren garrantzia hizkuntzaren transmisioan*. Akaitze Kamiruaga eta Fredi Paia

11:25: *Euskerearen transmisioa Euskal Herri*

11:30: *Mahai-ingurua*

12:30: Itaun-erantzunak

12:45: Omenaldia: Luis Baraizarra.

Gorazarrea: Juan Luis Goikoetxea

13:15: Amaiera ekitaldia

Prezioa:

30 euro (10 euro ikasleentzat)

Informazio gehiago:

www.mendebalde.com

elekma
ELECTRODOMESTICOS Y ELECTRONICA
MAYORISTA Y MENORISTA
Membresías: 2014 y 2015
100% BATERIA, 100% GARANTIA
Calle de la Industria, 10, 48013 Lezama (Bizkaia)
945 11 11 11

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.
Aroak: 1.000
MEMBROS
10.000 €
10.000 €
10.000 €
10.000 €

at egiten hartuz”

Bai! Dogun arazoa gurera oso gazte gitxi etortzen dala da. Gure kasuan, ez dau mezei oso musika talde haundia ekartzea, dirua botatzea da-eta. Ganera, diru-laguntza txikiagoa izango dogu aurten...

Izan be, krisia jaietara be ailegatu ei da. Penaz eta dolorez ekitaldiren bat kendu beharko dogu aurten; artzain txakurren erakustaldia, beharbada. Baina denpora hobeak etorriko dira, eta barriro antolatu-ko dogu.

Noiz hasten zarie egitaraua prestatzen? Asegurua Loiuko eta Larrondoko jai-batzordeakaz batera ateratzen dogu eta hori dala-eta, behin-behineko egitaraua egiten da apirilean. Jaiak irailean ospatzen doguz eta antolatze beharretan uztailean sartzen gara buru-belarri. Urtero gauza berdintsuak egiten diranez, gitxi gorabehera badakigu nondik jo, eta ez dau hainbeste beharrik emoten. Buruhauste haundiena emoten dauana txosnea da, erosketak egin behar diralako, jentea egon behar dalako bertan...

Ekitaldiren bat lotu da inoz antolatu bari-rik?

Ez, hasikera-hasikeratik dakigu zenbat diru dogun eta presupuesto horretara moldatzen gara. Laguntzea gazteen partetik beharko geunke. Antxina jubilatuko ginan, baina erreleborik ez datorrenez, hemen jarraitzen dogu. Jaiak beharrezkoak dira eta norbaitek antolatu behar ditu. Azken baten, hiru egun baino ez dira eta, egia esan, primeran pasatzen dogu egitaraua prestatzen. Batzarrak txoko baten egiten doguz beti: jatekoa ekartzen dala, edatekoa... (kar, kar).

Eta erakunde eta enpresen partetik?

Udaletik laguntzea jasotzen dogu, baina gure inguruan ez dago enpresa askorik eta ez goaz leku batetik bestera diru eske. Dana dala, badoguz ezagunak enpresa batzuetan eta sariak-eta euren bitartez lortzen doguz. Okinak eta tabernakoek be emoten deuskue laguntzea.

Zein da auzoko jaietako alderik onena?

Auzotarrok eta kanpora bizi izatera joan diranak alkartzen gabela. Hori motibo polita da jaiak antolatzen jarraitzeko. Herri-rik be etortzen da jentea eta guztiok eza- gutzen dogu alkar. Era berean, bertoko ohiturak mantentzen laguntzen da.

Ezberdintasun handiak nabaritutako do- zuez herriko jaiakaz alderatuta...

Beno, lehenengo eta behin, dirua, jakina.

Baina, gure ustez, herrietako jaiak as-koz ofizialagoak dira orokorrean. Au- zoetako jaiak bertakoentzat egiten di- ra, eta auzotarrek parte hartuz. Hau da, harria ekarri behar dala idi-probe- tarako, ba geuk ekartzen dogu; landa- eta atondu behar dala, ba geuk egiten dogu...

Lehen beste lagun etortzen dira jaietara?

Gero eta interes gitxiago dago jaietara-ko, baina, halanda be, egin behar dira. Orain dala 25 urte 200 lagun lotzen gi- nan plazan bertsolariei entzuten; gaur egun, berriz, 60. Lehen herriko zein alboko herrietako jente asko etortzen zan bertsolariak entzun edo idi-probak ikustera, besteak beste. Jente heldua zan. Gaur egun bikote gazteak datoz umeakaz, domeka pasatzera. Auzoe- tako jaiak ez dagoz sasoi onean, ez Txorierrin ez inon be ez. Beste alde

“Jaiak beharrezkoak dira eta norbaitek antolatu behar ditu. Erreleborik ez datorrenez, hemen jarraitzen dogu!”

“Kanpora bizi izatera joan diranakaz alkartzen gara; motibo polita jaiak antolatzen jarraitzeko”

batetik, hainbat faktore hartu behar dira kontuan gure kasuan. Izan be, berton txosna bakarra dogu eta ingu- ruan ez dago tabernarik. Zer egingo dute gazteek hemen? Horrezaz ga- nera, eguraldiaren menpe gagoz: oso eguraldi txarra egiten badau, ez dago non egon; eta eguraldi ona egin arren, hotza dago gaban.

Jai-batzordean hainbeste urte emoteko, zein da saria?

Alkarregaz egon eta gauzak alkarre- gaz prestatze hutsagaitik merezi dau. Hau norbaitek egin behar dauan beha- rra da eta gustura sentitzen zara, zeuk egiten dozunean. Orduak sartu behar dirala, eta denporea galdu? Ba, beste edozein ekintzatan bezala. Hori gitxie- nekoa da.

ZAMUDIO MOTOR



94 452 1616
94 452 1648

Mk. Zamudio
Pte. 11 (N-101)
40100 ZAMUDIO (Vizcaya)

AM2

taberna

11 - 40100 Zamudio (Vizcaya)

BAR TXIKI

TRUKA
MENUAK
TORTILLAK

Bar Txiki
11 - 40100 Zamudio (Vizcaya)

LOTTORI

Loteria de Navidad
11 - 40100 Zamudio (Vizcaya)

ESTILISTA EVA ARDINES

AmAr

Estilista Eva Ardinés
11 - 40100 Zamudio (Vizcaya)

ALBERTO

11 - 40100 Zamudio (Vizcaya)

Gemma Verdaguer, masajista

“Erreflexoterapiak lagundu ahal digu pilula-kaxa albo batera uzten”

Erreflexoterapia txinatarrek erabiltzen zuten antzinako teknika da. Egiptiarrek eta hinduek lantzen zuten probak ere badaude, eta batzuen ustez, erreflexoterapia erabili zuten lehenengoak amerindiarrak izan ziren. Eurak inkengandik jaso zuten teknika. Gemma Verdaguer sondikoztarrarengana jo dugu, terapia hau apur bat hobeto ezagutzeko.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Oihana Astobieta

Zer da?

Gaixotasun batzuk osatzen lagunduko digun terapia: estresa, haizeak, idorreria, zirkulazio-arazoak... Eta beste batzuk hobetuko dizkiguna: buruko mina, muskuluen kontrakturak, menopausiak eragindako beroaldiak...

Zertan datza?

Gorputzaren nerbio-bukaera guztiak oinetan ditugu; hau da, gorputz atal guztiek isla dute oinetan. Oinetan egiten ditugun pultsazioen bitartez bizkortu egiten dira bertan islatuta dauden gorputz atalak. Pultsazioak nerbioen bidez ailegatzen dira lantzen gabiltzan organora, eta energia-kanalak bizkortu egiten dira. Ondorioz, gorputzak berak osatzen du gaixorik dagoen organoa.

Oinei buruz ari zara, baina gorputzeko beste ataletan ere egiten omen da: eskuetan, sudurrean eta belarrietan, hain zuzen ere.

Bai, horietan ere egin daiteke, baina oinak askoz sentikorragoak dira eta zuzenagoa da bertan egitea. Gutxi zaintzen ditugu oinak eta ezinbestekoak dira guretzat, gure oinarria direlako; ibiltzeko erabiltzen dugun gorputz atala. Beste alde batetik, erreflexoterapia zientifikoek egiaztatu duten terapia da: buruak oinetan duen erreflexu-puntua anestesiatzen bada, buruko mina kentzen da.

Badu kontraindikaziorik?

Minbizia dutenei ezin zaie erreflexoterapia egin, gaixorik dauden zelulak gorputzean



zehar zabaltzeko arriskua baitago. Eta gauza bera gertatzen da infekzioen bat dutenekin. Haurdun daudenek ere ezin dute haurdunaldian lehenengo hiru hilabetez erreflexoterapia-saiorik jaso, badaezpada.

Eta gaixotasunik ez badago?

Egokia da edozein pertsonarentzako; oso egokia, erlaxatu eta estresa kentzeko. Gaur

egun kasu gutxi egiten diogu geure buruari. Normalean korrika ibiltzen gara eta ez dugu erlaxatzeko astirik. Horregatik ez legoke batere txarto ordubetez masajea egitea. Informazio gutxi dugu erreflexoterapiari buruz, baina pilula-kaxa albo batera uzten lagundu ahal digun terapia da. Hori bai, profesional batengana jo behar dugu beti.

Kataluniatik Txorierrira

Gemma katalana da, Terrassakoa, eta Sondikara 1996. urtean etorri zen bizitzera. “Badakizue, maitasun kontuak; Deustuko batekin ezkondu nintzen!”. Ondo moldatzen da Txorierrin, eta bertan oso pozik dagoela dio. Hala ere, txikitatik du harremana Euskal Herriarekin, amama Hondarribikoa baita.

Euskara ikastera animatu da Gemma. “Katalunian bizi nintzela amorrua ematen zidan kanpotik etorritako jendeak katalana ez ikasteak; orain bertan nago eta euskara ikasi behar dut. Errespetuagatik eta neure buruarekin koherentea izan behar

dudalako”.

Adierazi digunez, euskara katalana baino askoz zailagoa da, eta kalean euskara gutxi entzuteak ez du asko laguntzen hizkuntza ikasteko orduan. Horregatik, izena eman du Berbalagun egitasmoan. Duela gutxi erreflexoterapiaren gaineko ikastaroa eman die berbalagunei. Jendea oso gustura egon da; are gehiago, hain pozik ibili direnez ikastaroa luzatu egin behar izan duela azaldu digu. “Oinarritzko ikastaroa izan da, baina inportanteena euskaraz egin dugula izan da”.

BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroa

Piramide deigarria eta jasangarria

Garai batean, egiptiarrek eguzkiarekin lotzen zituzten piramideak, eta horregatik, Nilo ibaiaren ezker ibarrean altxatu zituzten denak; eguzkia sartzen den aldean, hain zuzen ere.

BTEK Teknologiaren Interpretazio Zentroa piramide bik osatzen dute. Bata beltza da eta 18 metroko altuera du; bestea lurrean sartzen den piramide berdea da. Piramide beltzaren hegoaldeko aurpegian eguzki-plakak jarri dituzte, izan ere, zentroa eguzkiaren energiaz hornituko da. Gainera, eraikina Teknologi Elkartegian dago kokatuta, Zamudioko Teknologi Parkeko punturik altuenean, eta Parkeko eraikinik altuena da.

Baina hori ez da energia aurrezteko izango dugun sistema bakarra, aire giroturako ere sistema berezia erabiliko baitugu. Sistema geotermiko bertikalaz ari gara; lurrean egindako zulo sakon bat aprobeztatzen da, sistemako tenperatura kontrolatzeko.

Eraikin liraina da, deigarria, bitxia... be-

netan erakargarria. Eta kanpotik horrelakoa bada, zer esan barrualdeari buruz! Gelek hartzen duten bolumena, leihateak, arrapalak, argia, horma triangelatuak... Lan ederra egin du Gonzalo Carro arkitektoak.

1.000 m², erakusketarako

Bost gela nagusi daude eraikinean, 1.000 m² inguru atondu dira erakusketarako. Sarrera ia 15 metro hartzen dituen korridore estua da, eta horrek "Sarea eta Mundu digitala" eremua kokatuko den aretora eramaten gaitu.

Eraikina lehenengo aldiz bisitatzen duzenean, ez galdu "Kioskoa" deitu diogun areto harrigarria ezagutzeko aukera. Eta ez itxi inori kontatzen

zelakoa den, norberak topatzea merezi du-eta.

Eskaileretatik jaitsi, eta piramide biak lotzen dituen gunera ailegatuko gara; etxearen inguruko eremua eta "L@btek" hartuko dituen. Azkenik, zalantzak izango ditugu hortik beheko piramidara sartzeko dauden bideak aukeratu behar izateko orduan: leihateek eta hormek argiaren laguntzaz eskaileretan egiten duten efektu geometrikoa, ala bosgarren aretora eramango gaituen arrapala.

IX. mendean urteak pasatu ziren, lapurrak Keops piramidara sartu zirenetik Abdullah Al Mamun kalifa arabiarrek haren barrerak berriz ere ikusi ahal izan zuen arte.

Aukera azarotik aurrera izango duzue gurenean.



Testua: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

ZURAS
Estetika eta masajea
Ana Paul Egido, tit. Indur
Tel: 94 42 75 91 - 94 42 75 92 (fax)

KIMA
Landmark
LANDMARK ATAYNGARRIA
Calle de la Paz 14 - 48100 Leizor (Bizkaia)
Tel: 94 42 75 91 - 94 42 75 92 (fax)

LUTERIA LEZAMA
SOLERA
LUTERIA LEZAMA
1407
SANTO DOMINGO
LEZAMA
CALLE DE LA PAZ 14 - 48100 LEZOR (Bizkaia)
Tel: 94 42 75 91 - 94 42 75 92 (fax)

Oguiza
Harta Kikinku
CALLE DE LA PAZ 14 - 48100 LEZOR (Bizkaia)
Tel: 94 42 75 91 - 94 42 75 92 (fax)

OSASUNEZ, PISUA GALTZEKO METODOA
GET IT DONE WITH THE BEST OF THE BEST (ITALY)
KIMAT LUTERIA LEZAMA
beltary
Esfuerzo físico, hoy
CIERTEMENTE DEBEN OSAR
PERSONALIZADA,
ESPECIALIZADA,
SEGURA, ...

Joseba Gotzon Loiu ko kantautoreak 1984. urtean kaleratu zuen lehendabiziko diskoa, Hilargi diskoetxearen eskutik: *Gau hotza*. Hogeita bost urte pasatu dira ordutik hona, eta ibilbide luze bezain oparoa eduki du. Izan ere, orotara beste bederatzi lan eman du argitara: *Inpotentzia* (1985), *Botere zalantzakoak* (1987), *Kalapo* (1991), *Made in Ris* (1995), *Noegga, historias y leyendas* (1999), *Nortasuna* (1999), *Fotopoemak* (2003), *Gris* (2006) eta *Padelitis* (2007). Azken disko hori KDENETARIK PRODUKZIOAK diskoetxearen bitartez atera zuen; diskoetxea Joseba Gotzonek berak sortu zuen duela urte bi. Beste alde batetik, lan horietako abesti batzuk zenbait irratitako zerrendetan egon direla aipatu beharra dago.

Jarduera diskografikoak ezagun egin du herrialde ezberdinetan, eta kantautorea leku batetik bestera ibili da bere lana aurkeztan: Georgia (2000), Argentina (2001, 2004 eta 2006), Venezuela (2001), Brasil (2006), Italia (2006), Katalunia (2003-2008) eta Espainiako Estatua (1995-2008), esate baterako. Era berean, eszenatoki eta jaialdiak partekatu ditu izen handiko musikariek; Luis Eduardo Aute, Loquillo, Javier Krahe, Oskorri, Kortatu, Imanol eta Amancio Prada, euren tartean.

Joseba Gotzonekin euskal musika panoramaren artista ospetsuek egin dute lan, zeinek euren ekarpena egin baitiote loiutarraren lanari: Akelarre, Kepa Junkera, Gontzal Mendibil eta Niko Etxart. Horre-

“Kantautoreak errepertorio
klasikoa eramango du
eszenatokietara, 25.
urteurrenaren haritik”

zaz gainera, musika-produkzio batzuk egin ditu Euskal Herriko zein Kataluniako musikariek in batera.

Urteurrena dela-eta Joseba Gotzonek birari ekingo dio laster. Birak Euskal Herriko hainbat txokotara ez ezik munduko zenbait herritara ere eramango du: Frantzia, Kroazia, Espainia, Katalunia eta Argentina, besteak beste. Kontzertuetan Itziar Basagoitik (biolontzelo), Luis Alberto Requejok (klarinetea) eta Pedro Hoyuelosek (pianoa) lagunduko diote; hala ere, Argentinan hango musikariek inongo du bira.

Kantautoreak errepertorio klasikoa eramango du eszenatokietara. Horrela, bere diskoetako abestirik ezagunenak eta onenak aukeratuko ditu jendaurrean jotzeko. Kontzertuak grabatuko dituzte eta abestiak bilduma batean jasoko dira. Bilduma horretan oraindik grabatuta ez duen abestiren bat ere sartuko da. Lana Durangoko Azokarako argitaratuko da, eta 25 izango du izena.

[illegible]

Bar TRIPPY
LIVE CHRONIC ONELA

Bar e kitchen con cucina, sala da tè con salotto
con stoviglie, piatti, stoviglie, stoviglie, stoviglie

(Spazio per il tuo logo)

5 5 5 5

 **UMENTZANO
MODA**
Tameleta

Lombardia - Milano, 10
Telefono 02-581.14.13
Fax: 02-581.20.20

020422222
Bologna

[illegible]

Onegin restaurant

Restaurante e bar di tendenza
per chi vuole vivere alla moda
e gustare la cucina di oggi.

Chiedi il menu alla reception


Indirizzo: viale dell'Industria 54 - 40138 Bologna
54 455 63

Madarian
...and all others...

Introducing the NEW
 2004 **STREET** **COAST**
 1400 cc 12V 4-cyl. 140 HP
www.madarian.com
 800.444.4444

Larrabetzu

Argazkia Larrabetzun egin zan. Data, leku zehatza edo baten bat ezagutzen badozu jakinarazo. Zelan? 944523447 telefono-zenbakira deituz, aikortxori@aikor.com helbidera idatziz edo www.aikor.com > txokoak > Atxinako argazkiak atalean erantzuna itxiz.



၁၆၆၆

Zernikelen Technologie Partner
 Tel. 066 - 26760
 E-Mail: info@zernikelen.com
www.zernikelen.com

BASERRI *menua*

Leptocarpus Falsus (L.) (Family: *Leptocarpidae*)
 (L.) (Family: *Leptocarpidae*)

© 2004 by Springer Science + Business Media, Inc.

29 €

THE 2008 EDITION

LEHIAKETA

Asmatu galdera eta sari hau lortu:

Bi lagunentzako tratamendua:

TXOKOTERAPIA

(gorputza txokolatez estaltzea)

Hilabete honetako galdera zera da:

Non egingo da komiki tailerra?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

–Postaz: Aresti kalea 2, 48170, Zamudio

Aurreko erantzuna: 148 bikote


Irabazlea: Inmaculada González

Bakoren bazterra

Mahatsondoaren adina

Ez dakit bat etorriko zaretan nirekin, baina azken urteotan, gero eta ardo gehiago eskaintzen digu merkatuak egin diren mahatsondoen adinari buruzko erreferentzia etiketan dutela. Kontzeptu bera adierazteko, hauen moduko adierazpenak topa ditzakegu: mahasti zaharra, mahatsondo zaharrak, *old vines*, *vieilles vignes*... Ona da? Txarra? Mahatsondoa hainbat eta zaharragoa izan, gero eta hobe da ardoa? Galdara horiei erantzuna emateko, aikor!lagunak, mahatsondoaren adina bezala definienezakeena hizpide izango dugu oraingo honetan.

Ardo onak ekoizteko, mahatsondoak



Iñaki Suarez,
sumillerra

halako adin bat izatea beharrezkoa da. Mahatsondoa hirugarren urtean hasten da mahatsa ematen; hala ere, horien kalitatea ez da batere ona, harik eta mahatsondoak bost edo zortzi urte bete arte. Ekoizpenari dagokionez, mahatsondoa zortzi urte di-

tuenetik 20 urte bete dituen bitartean dago unerik onenean. Eta 20 urtetik aurrera mahastia zaharra dela diogu. Mahasti zaharrak erabat garatu du bere sustrai-sistema, eta errendimendu neurritsua du. Ondorioz, muztioak zapore eta aromen kontzentrazio handiagoa du, mahatsondoa ahalik eta kalitate gehien eman dezakeen momentuan dagoelako. Mahasti zaharretako *garnatxa* bezalako barietate batzuek kalitate eta zahartze-potentzialerako ardoak sortzen dituzte, mahatsondo gazteenek sortzen ez dituztenak.

Mahastia 30-50 urte dituela ateratzen da sustraitik, horren ardoaren kalitatea bikaina izan arren, etekinak behera egiten baitu harik eta errentagarria izateari uzten dion arte. Gainera, horrek botilaren prezioa garesti dezake.

Nolanahi ere, ardoaren kalitatean eragina izan dezakeen aspektua da, baina ez bakarra. On egin.



PIKA IKUSLAN

Irakurri eta gero ezabatu.
Kartutik eta Internetik
Ezabatu eta berritu zure
Lehenengo erabilera.

Ona irakurri, gero ezabatu. Tel: 94 452 14 49

TALLERES JUAN ANDRÉS

REPARACIONES, MANTENIMIENTO Y SERVICIO
PARA TODOS LOS VEHÍCULOS

Carretera de Leizaola, 10 - 48940 Leizaola (Bizkaia)

Merceria Karmele

Productos seleccionados y a precios especiales

Carretera de Leizaola, 10 - 48940 Leizaola (Bizkaia)

BAR RAFI

BARRAQUINAKO BARRAQUINAK

Barraquinakoko Barraquinak

Leizaola, 10 - 48940 Leizaola (Bizkaia)

INTIMISTA - DRESSING

Ruben

Leizaola, 10 - 48940 Leizaola (Bizkaia)

ZAMUDIOKOKO ESTANBOLA

Tobakokoak, tabakoa eta oporrik

Leizaola, 10 - 48940 Leizaola (Bizkaia)

Ercoreca
supermerkatuak

Elikaduran adituak

LIBURUAK

NAGUSIAK

Nora ez dakizun hori

Irati Jiménez

Ez obeditu inori

M. Peruarena. Donostian kokatu-tako eleberri honetako hiru pro-
tagonistek atentatua burutuko
dabe Maria Cristina erreginaren
eta bere semearen aurka.

Emmanuel kanten azken egu-
nak

A. Sastre ; Fito Rodriguez

HAUR ETA GAZTE

Tximeleta belarriak

L. Aguilar

Zirkua amets

J. Ormazabal

Txorriak eta habiak

K. Santisteban

Wendyk hegan ikasi zuen gaua

A. Martin

MUSIKA

Gernika

EOS. Francisco Escudero kon-
positoreak egindako lan hone-
tan, ehun musikarik hartu dabe
parte (orkestra, ahotsak, bakar-
lariak, koruak...)

Haikua

Sagarroi

Awañak

Petti

The crying ligh

Antony & The Johnsons. Aban-
guardiako musika eta bluesa
uztartuz.

DENBORA PASA

LETRAZOPA

A	E	Z	T	N	U	I	D	O	F	U	K	H
U	Z	K	D	J	Ñ	T	A	B	I	A	I	M
B	I	Z	U	E	B	Y	S	A	G	E	N	B
E	A	J	S	I	E	S	F	R	D	P	K	E
O	X	B	T	F	K	H	L	H	D	N	I	P
A	I	Y	M	U	Ñ	E	K	E	A	K	N	O
E	S	K	Ñ	G	R	S	U	O	J	M	E	G
K	Y	J	L	N	P	R	B	P	M	Ñ	O	F
I	J	K	Z	D	M	N	I	L	H	P	Z	L
N	A	X	H	K	I	R	Ñ	T	L	G	N	O
A	X	T	U	X	N	X	U	N	X	R	Y	Ñ
K	F	K	T	R	O	N	P	E	A	T	M	G

B	G	O	T	T	I	B	E	R	E	A	X	F
T	D	S	T	Y	E	D	U	B	Y	L	Z	U
A	E	X	T	U	K	U	K	F	Z	E	J	S
B	X	N	E	E	I	X	F	A	E	D	K	L
S	H	P	A	Y	O	A	Y	J	Ñ	R	P	O
U	A	D	R	U	E	Ñ	K	G	K	O	K	Ñ
A	T	Z	P	D	X	I	O	L	J	K	R	I
O	R	M	N	E	N	D	R	O	R	P	H	O
X	S	B	H	A	B	N	R	R	G	T	N	M
T	F	G	K	F	I	A	O	I	U	I	J	L
O	H	O	R	P	K	L	A	J	M	T	S	N
B	S	G	M	O	L	Ñ	M	H	Z	L	I	G

Umekaz jarraitzen dogu. Ia gai
zaren **umeen olgetakaz zer
ikusirik daben beste 7 berba**
aurkitzen* goiko letrazopan.
Kontuan hartu egizu Txorierrin
esaten dan eran idatzita
dagozela.

* Derioztarren euskara liburutik
jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 80. zen-
bakiaren erantzuna. Umeen
olgetakaz zer ikusirik daben 7
berba.

g*generazioa



Antzerkia eta filmak

Larrabetzu

–Zinea, maiatzaren 30ean: 16:00etan, 4 urtetik 9urtera bitartekoentzat; 18:00etan, 10 urtetik 16 urtera bitartekoentzat.

Erakusketak

Sondika

–Sondika-Goiri argazki taldearen lanak, maiatzaren 11tik 22ra, liburutegian.
–Klima-aldaketa, maiatzaren 25etik ekainaren 5era, liburutegian.

Derio

- Aeromodelismoaren erakustaldia. Maiatzaren 23an, 17:00etan, Seminarioan. SU-BYKE taldeak antolatuta.
- Gimnasia erritmikoaren erakustaldia. Maiatzaren 23an, 19:00etan, kiroldegian. Miragarri taldeak antolatuta.

Larrabetzu

Palestina, maiatzaren 4tik 16ra, Anguleri Kultura Etxean.

Hitzaldiak

Lezama

–Nekazaritza ekologikoa. Maiatzaren 5ean eta 12an, 18:00etan, Uribarri Topalekuan. Zorritzetan euskara elkarteak antolatuta.

Larrabetzu

–Palestina. Maiatzaren 7an, 19:00etan, Anguleri Kultura Etxean.

Ikastaroak

Zamudio

–Paleontologia ikastaroa. Maiatzaren 23an, 12:00etan, liburutegian. 3 urtetik 5 urtera bitarteko umeentzat.

Irteerak

Sondika

–Jata. Maiatzaren 17an, 09:15ean, eskolako parkingean. Izena ematea: maiatzaren 11tik 14ra, liburutegian. Goronda Gane guraso elkarteak eta Udalak antolatuta.

–Urduña, maiatzaren 24an. Izena ematea: maiatzaren 4tik 10era, Gaztetxean.

Zamudio

- Bizkargi, maiatzaren 3an. Arroeta mendi taldeak antolatuta.
- Bizkaiko bira, maiatzaren 17an. Txirrin-txirrin txirrindulari taldeak antolatuta.
- Dima, maiatzaren 24an. Txirrin-txirrin txirrindulari taldeak antolatuta.

Larrabetzu

–Soto en Cameros (Errioxa). Maiatzaren 16an, Gure Etxeak antolatuta. Izena ematea; maiatzaren 14a arte.

Musika

Zamudio

–Kamara Korlaren emanaldia. Maiatzaren 16an, 20:00etan, Algortako Trinitarioetan.
–Kamara Korlaren emanaldia. Maiatzaren 30ean, 20:30ean, Zamudioko San Martin elizan.

Bestelakoak

Sondika

–Uda kanpainan izena ematea: maiatzaren 4tik 8ra, Kultura Etxean.

–Aste Berdea, maiatzaren 30etik ekainaren 5era: birziklatze lehiaketa, Aresketamendi parkera irteera (maiatzaren 31an)...

Derio

–Poesia errezitaldia. Maiatzaren 23an, 19:00etan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkar-teak antolatuta.

–*Rumores de Milonga*, Argentinako folklo-
rikuskizuna. Maiatzaren 29an, 20:30ean, Gu-
rea Aretoan. Prezioa: 5 euro.

Zamudio

–Pilota eskolako umetxoer arteko jolasak; ondoren, nagusien partidak. Maiatzaren 29an, 17:00etan, frontoian. Arbolantxa Pilota Eskolak antolatuta.

Larrabetzu

–Nagusien jaia. Maiatzaren 23an, 11:00etatik aurrera, eskolako kanpoko futbol-zelaian.

 
J. ELORRIAGA
 Profesor Intervenciones Sociales e Ideas
 MONTAÑANA, 1
 TELÉFONO 41-100 DE 41
 CANTABRIA 4701



Polukerla
Estetika
01 455 81 44



Frigid Angel Delivery
1-800-222-2222

650.700.2222 **847.392.0022**

**WARTUNG UND REPARATUR
VON KRAFTFAHRZEUGEN
UND TRAKTOREN
SOWIE VON MASCHINEN
FÜR DEN BAUBEREBEIT**










 **GARAIOLTZA, S.A.**
INDUSTRIAK ERAKUNTZAK

LEZAMA

ETXERETZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK
LEHEN HABILAKO ERAKUNTZAK, LEHIOK HANIHAK,
ORDAINTZEN DIBERTASUN HANDIAK

TF. : 94 455 50 19

Urdulotze zahar, 128 (bidea)
Lezama (Bizkaia)

**Quere gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**




...malla handiko teknologiarekin.

[illegible]


6050

Industria de Turbos Presurizados S.A.

www.jlps.net



txakoli
mota
gane
txakolina



Paraje zoragarria, naturaren erdian

- Eguneko menua
- Asteburuko menua
- Taldeentzako menu bereziak
- Indabak "sakramentuekin"
- Zizka mizkak
- Etxeko sukaldaritza
- Gaiherriko produktuak
- JAZZ gauek ostiralero
- Zuzenean, bertako eta atzerriko taldeak
- Giro ezinhoben
- Ardo dastaketak
- Gastronomi elkarteak
- Mahastiz inguratua

"On egin deizuela janak eta kallerik ez edanak"